

# Estazioaren

# historia

# bizia

Durangoko historiaren parte den estazio zaharrea jaiotakoa da Enrique Urkijo, eta trantsizio sasoian bertan bizitako gertaera esanguratsu bat atera du argitara. Bien bitartean, eraikina botatzeko lanekin segitzen dute beharginek. • 2-3

LENDI ELOBERGIA

*“Truditu zitzaigun Jon Braunek aukera ematen zuela zoritxar bat ipuin tankeran kontatzeko”*



Miren Larrea Murgoitio  
Anita Maravillas • 13

**“Lehenengo rallyak irakatsi zizkigun mundu honetako alde ona eta txarra; biak aldi berean”**

**Auto lasterketak** | Asier Araiztegi eta Izaskun Badiola senar-emazteak auto lasterketetan dabiltza, pilotu eta kopilotu. • 28



**Trabakuako errepidean pasabidea egingo du udalak**

**Mallabia** | Errepideko pasabidearen proiektua irailerako prest izan gura du udalak, urri inguruan lanei ekiteko.

6. orrialdean

## Aurreratu zure Aste Santua

Erreserbatu orain Europan, Kanarrietan, Balearretan... egingo duzun bidaia, eta gozatu deskontu onenez.

**Eta, gainera, penintsulako kostaldeetako hoteletan**

**30€** zure txartelera

600 €-ko erosketa bakoitzeko

 **EROSKI** bidaiak





**Enrique Urkijo Goitia**  
Estazioan jaioa |  
Bilboko Udaleko  
garraio zuzendaria  
**Durango | 1951**

## “Burgosko prozesuko zigortuak gure etxera, Durangoko estaziora, ekarri nituen lotara”

Durangoko tren estazio zaharraren historiako protagonistetako bat da Urkijo; bertan jaio zen 1951n, eta 26 urtez bizi izan zen han, trenbideetako tradizioa zuen bere familiagaz

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

**Enrique Urkijok hunkituta begiratu dio egunotan eraisten ari diren tren estazio zaharrari. Horma eta teilatu horien babesean jaio zen, eta umezaroan bizitakoari esker hasi zen trenen mundua maitatzen. Jostailu eta egongela bereziak zituen: benetako trenekin benetako estazioan jolasten zen. Tradizio familiarrari jarraitu, eta Euskotrenen hasi zen lanean, trenbideen planifikazioan. Gero, ibilbide luze eta garrantzitsua egin du: Bilboko Metroaren antolaketan ibili zen, Malagako Metroa sortzen, Renfen zuzendari nagusi... Bilboko mugikortasun zuzendaria da gaur egun. Estazioan bizitako urteetan, sekretupeko ekintza politiko esanguratsu baten protagonista izan zen. Burgosko prozesukoak publikoki agertu aurretik, estazioan egin zuten lo.**

**Trenetikiko pasioa zure aitarengandik eta aitariengandik datorkizu. Zer dela-eta bizi zineten estazio zaharrean?**

Gure aitikak Ferrocarriles Vascongadosen lan egin zuen 1905etik 1957ra bitartean. Gerra sasoiaren, Eusko Jaurlaritzako garraio zuzendaria izan zen, Agirre Lehendakariagaz. Kontseilaritza Juan Astigarrabia komunistaren esku zegoen, eta nire aitita jeltzalea izan arren, ardura horixe zeukan; teknikari bat zen berez. Gero, erbestera joan behar izan zuen, eta bueltatzean enpresa berean lanean jarraitu zuen. Aitita bezala, gure aita ere Bilbon jaio zen, eta Atxurin hasi zen beharrean 1934an. 1949an Durangora etorri zen, lanagaz batera etxebizitza eskaini ziotelako. Berak eta amak ezkondu egin gura zuten, baina ez zeukaten etxerik. Tren operazioak zaintzeko plaza bat ateratu zen Durangon, eta trenak edozein ordutan pasatu zitezkeenez, plaza hori etxebizitza eskubideagaz zetorren. Gure aita estazioko aginte postuan egoten zen lanean, erai-kinek zati berriko lehen pisuan, eta gu bigarrean bizi ginen. Gure ama Zumaian jaio eta Bermeon bizi

izan zen; beraz, guk ez dugu aurrekaririk Durangon. 11 neba-arreba jaio ginen estazioan bertan. Gero, amak beste ume bi eduki zituen Unamunzagaren klinikan, baina biak hil ziren.

**Zu noiz arte egon zinen bertan bizitzen?**

Ezkondu nintzen arte, 26 urteagaz, 1977an. Nire familia, osterara, aita jubilatu osterara arte egon zen bertan, 1989ra arte. Durangoko lanaren ostean, Bilbo-Plentzia eta Bilbo-Hendaia lineetako zirkulazio ardura izendatu zuten, 1979an. Nire anaia bat ere trenbidean lanean hasi zen, eta Durangoko estazioan egon zen bizitzen.

**Umezaroan zer oroitzen duzu?**

Andenetan jolasten ginen. Bizilagun batek oiloak ere bazeuzkan, eta hantxe ibiltzen ginen denak batera. Jendeak esan izan dit: “Zuk izango zenituen tren elektrikoak etxean, ezta?”. Ez, bada, nik benetako trenak nituen etxepean. Tren-gidari batek, probak egiten zebilela, Berrizerraino joateko gonbita egin

eta hantxe joaten nintzen trenean, ahal nuen guztia ukitzen. Bozina jotzea itzela zen! Geltoki aurrean Arrazolako autobusa geratzen zen, eta autobusik ez zegoenean futbolearen ibiltzen ginen. Ezkurdi oso ondo zegoen jolasteko, orain txarto eginda dagoela esango nuke. Kariño handiz gogoratzen dut sasoi hura.

**Trenen ordutegiak buruz jakingo zenituen...**

Bai. Eguneko lehen trena 05:05ean irteten zen Bilborantz. Jendearen zarata, mugimendua... Trena irten orduko, txistua jotzen zuen geltokiko buruak, eta tren-gidariak bozina. Eta gero trena martxan hasten zen. Hori guztia nik lo egiten nuen gelaren azpian. Baina, sekula ez nuen goizez entzun, barneratua bainuen. Greba zegoenean bai, or-

duan konturatzen nintzen, ohiko zarataren falta sumatzen nuen. Gabon askotan, afaltzeko mahaia bulegora bajatzen genuen; azken trena 23:00etan heltzen zenez Durangora, eta behargina etxera joan zedin, gure aitak hartzen zuen agintea. Lan eta etxekoekin afaldu aldi berean egiten zuen.

**Mugimendu handiko eremua zen. Anekdotarik gogoan?**

Txikia nintzela, dinamita bagoietan garraiatzen zuten, eta egun batzuetan Durangon pasatzen zuten gaua. Behin, bagoia gordeta zegoen tailerrean sua piztu zen, eta goizaldean, 03:00ak bueltan, etxetik atera behar izan genuen, amaren eskutik helduta.

**Gaztaroan, jende askok ez dakien ekintza politiko garrantzitsu baten protagonista izan zineten zu eta estazioa.**

1977an, Burgosko prozesuko epaituen kaleratzea akordatu zuten. Belgikara eta Danimarkara bidali zituzten, besteak beste. Urte haietan KASeko mahai nazionalen nengoan, eta epaituak Euskal Herrira ekarri behar zirela erabaki genuen, euren egoera legeztatze bidean. Kantaldi baten bidez jendaurrean aurkeztea pentsatu genuen, Abadiñoako probalekuan. Askatasunaren Ibilaldiaren garaia zen. Alderdien arteko barne eztabaidak genituen, protagonismoaren inguruan. Ekitaldiaren aurreko gauean, eztabaidan ari ginen HASIko bi eta EIAko beste bi. Perturren desagerpeneko urteurrena zen, eta epaituak hari Anoetan egin beha-

“**Sua piztu zen, eta 03:00ak bueltan, etxetik atera behar izan genuen, amaren eskutik helduta**”

“**01:00etan etxeko atea jo eta: ‘Ama, Burgosko zigortuekin nator’, esan nion; pentsa erreakzioa!’**”





rreko omenaldian agertzea gura zuen EIAk. Burgosko epaituak Bilboko etxe batean zeuden gorde-ta, eta euregaz adostea pentsatu genuen azkenean. Agerraldia Durangora lekuz aldatzerik ba ote zegoen galdetu zidaten, eta

“**Baliorik duen ala ez? Bueno, uste dut ni ez naizela objektiboa horretan, alde sentimentaltatik**”

“**Seme txikia makinaria da Renfen, eta nagusia Arabian dago injineru, trenbide bat eraikitzen**”

nik baietz, Jesuiten futbol-zelaian egin zitekeela. Bada, zigortuak gau hartan bertan Durangora lotara etorri behar zirela erabaki genuen, eta estaziora ekarri nituen. Gure etxe aurreko pisua libre zegoen, langile bat jubilatuta zela, eta giltza geneukan. 01:00etan etxeko atea jo eta: “Ama, Burgosko epaituekin nator”, esan nion; pentsa erreakzioa! Koltxoi bat atera genuen Monzonek lurtean lo egin ez zezan. Goizean, esnatzean, urduri zeuden. Gure amak egindako bazkaria jan zuten, eta

arratsaldean autoz eraman genituen Jesuitenera Durangoko eta Iurretako hainbat lagunek. Bost bat mila lagun zeuden kantaldian, eta zigortuak agertzean apoteosikoa izan zen. Jesuitek esan zidaten nire ardurapean hartzeko ekitaldia, eta horregatik, hurrengo goizean nire bila etorri zen Guardia Zibila. Lehen hauteskunde demokratikoen segidan izan zenez, ez ninduten ukitu. 50.000 pezetako isuna ipini zidaten, eta amnistiagaz kendu egin zidaten.

**KASeko zuzendaritzan egon zinen, beraz. Nola egin zenuen ibilbide politikoa?**

Txabi Etxebarrietaren funeralsen testuinguruan hasi nintzen politikan inplikatzeko. 1973an Deustuko unibertsitateko kanporatu ninduten, militantziagatik, eta Granadara joan behar izan nuen karrera amaitzera. Gero, HASiren bidea hartu nuen 1975ean, eta 78an Euskadiko Ezkerrera pasatu ginen bertako zati handi bat. Gero ere EEn jarraitu nuen nire bidea.

**Historialari eta ikerlari ugari, baita herritar askok ere, eraikina ez botatzeko eskaera egin dute. Zelan ikusten duzu zuk?**

Eraikinak baliorik duen ala ez? Bueno, uste dut ni ez naizela objektiboa horretan, alde sentimentaltatik. Sentimentalki oso lotuta nago estazio horretara. Euskotrenen lan egiteari utzi nioanean ere, penaz negar egin nuen.

**Euskotrenen hasi zenuen bide profesionala, eta Bilboko Metroaren sorreran parte hartu zenuen gero.**

1980tik 1995era egon nintzen Euskotrenen. Metroko gerentek lana eskaini eta proiektuaren sorrera antolatzen egon nintzen. 10 urte eder izan ziren, intentsoak. 2004an, Malagako metroa sortzeko arduraren aukera sortu zitzaidan, eta bost urtez egon nintzen han. Sevillako metroa martxan jartzeko koordinatzaile ere ibili nintzen. Gero, Andaluzian nire nagusia zena Renfeko presidente egin zuten, eta hark deituta, Renfeko zuzendari nagusia izan nintzen hiru urtez. Madril-Valentzia abiadura handiko linea inauguratzea tokatu zitzaidan, eta interesgarria izan zen. 2012an Euskal Trenbide Sarera (ETS) etortzeko aukera sortu zitzaidan, eta duela urte eta erditik Bilboko Udaleko mugikortasun zuzendaria naiz.

**Tradizio familiarrari jarraitu diozu. Durangoko estazioan bizitakoak bultzatuko zintuen horretara.**

Trenak beti erakarri izan naute, garraioaren planifikazioak ilusinatzen nau, ondo pasatzen dut. Orain, nire seme biek ere ofizioan dihardute: txikia Renfeko makinaria da, eta nagusia Arabian dago injineru, trenbide bat eraikitzen. Denok jarraitzen diogu, beraz, trenbideetako tradizioari.

## Historiara begira: bonben jopuntu, iheslarien irteera, etorkinen eta emakume presoen helmuga...

Jon Irazabal, historialaria: “Durangoren erdian egonik, estazioaren eremuko metro karratuak diru asko balio du, eta horregatik joango da pikutara”



1937ko bonbardaketaren ostean estazioan ateratako argazkia.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Eraikin batek babestua izateko balioa duen ala ez esatea subjektiboa izan daiteke, segun eta nondik begiratzen diozun. Durangoko estazioaren kasuan, historia da bere ezaugarri nagusia. Herriaren azken mendeko historiaren parte garrantzitsua izan da, 1882an eraiki zenetik.

Ezaguna da 1937ko bonbardaketaren jopuntuetako bat izan zela, baina beste hainbat datu ere baditu Jon Irazabal historialari eta Gerediaga elkartearen kideak. “Sozialki sinbolo bat izan da, aldaketa handia ekarri zuen Durangora. Bonbardaketaren ostean jende askok egin zuen alde tren estaziotik. Immigrazioaren sarrera ere hori izan zen. Lantegi horietan Durangoko UGT eta CNT sortu ziren. 1934ko iraultza tiroketak egon ziren bertan”, zerrendatu du Irazabalek. Horrez gainera, gerra ostean preso zeuden emakume asko heldu ziren bertara, Nevers ikastetxeko emakumeen kartzelan sartzeko. Maria Gonzalez Gorosarri kazetariak horrela kontatu zuen Astola aldizkariko 5. edizioan: “Egunero trenak emakumez gainezka heldu ziren. Nevers ikastetxean zegoen kartzelak 2.000 emakume pilatu zituen”.

Balio historiko horregatik, estazioaren eraisketa ez du begi

onez ikusten Irazabalek. Beste hainbat historialari, arkitekto eta herritarregaz batera, eraikina mantentzearen aldeko manifestua sinatu duenetako bat da. Bere ustez, ondarea mantentzen ez bada ez da izaten baliorik ez edukitzearen, lursailaren balioagatik baizik. “Durangoren erdian egonik, estazioaren eremuko metro karratuak asko balio du, eta horregatik joango da pikutara”, esan du penatuta.

**Industriaren aztarnak**

Estazio zaharra botata, “Durangok edukituen esangura

industrialaren aztarna gutxi” geratuko direla ere nabarmendu du Gerediaga kideak. Landa-kon dagoen tximinia, Plateruena atzean eta Arripauseta inguruetan dauden trenaren zubiak, eta Alluitz kalean dauden Mendizabaleko lantegiko zutabe bi, hain zuzen. “Alemanian, adibidez, zentro kultural bihurtu izan dituzte lantegi zaharrak. Han ahal bada, zergatik ez hemen?”, bota du galdera.

**Nortasunaren zati**

Belen Bengoetxea arkeologoa ere

bada manifestuaren sinatzailetako bat. Aitortzen du estazioak ondare artistiko aldetik ez duela baliorik, baina ikuspegi historikoagatik Durangoko nortasunaren zati bat dela uste du. Balio hori “sakonagoa eta interesgarriagoa” da Bengoetxearen iritzirako.

Geltoki berria eraiki zenean, instituzioek “iraganarekiko errespetuz” jokatu beharko zuketela pentsatzen du arkeologoak.

Eraikina mantentzea lortu gero, sozialki eta historikoki aztertzea komeniko litzatekeela

“**Gure historia garaikidearen parte da, eta baita gure nortasunarena ere**”

dio Bengoetxeak, eta gero, “soluzio irudimentsu eta alternatiboak aukeratu”.

**Babesteko eskaera**

Udal gobernuak ez du uste eraikina zutik jarraitzea merezi duenik, eta Jaurlaritzagaz batera aurrera darrai eraisketan. Oposizioak, ostera, horren aurka egin du. Eraikina kultur ondare izendatzeko eskaria erregistratu zuen azaroan EH Bilduk, eta erresoluzioa egon bitartean, legearen arabera obra geratu egin behar dela gogoratu du alderdiak.



BELEN BENGUETXEA



# Txikiparka astean zehar ere zabalik egotea eskatu du Durangoko Familien Taldeak

Umeentzako jolasgune estaliak eskatzen dituen taldeak eskaera berezia erregistratu du udalean; gobernuagaz batzartzeko zain daude, euren beharrez berba egiteko



San Agustin kultur gunean azaroan egindako batzarrean jaino zen familien taldea.

**DURANGO • J.G. / M.O.**

Durangoko Udalak Txikiparka prestatzen du otsailetik maiatzerako asteburuetan Landako Gunean, herriko umeek bertan jolasteko aukera eduki dezaten. Durangoko Familien Taldeak, baina, astean zehar ere zabaltzea eskatu du. Udalgaz batzarrerako data ipinita dute. “Alkatetzagaz batzarra egin gura dugu honen eta beste hainbat gairen inguruan berba egiteko”, azaldu du familien taldeko kide batek. Gai-

neratu duenez, “dagoeneko Durangon dauden azpiegiturak baliatzea

**Udalak Txikiparka zabaltzen du otsailetik maiatzerako asteburuetan**

gura dugu, estalitako espazioak aprobetxatzeko”. Umeak jolasteko

espazio estali baten beharra ikusten dute familien taldekoek, batez ere eguraldi txarra dagoenean alternatiba izateko.

**Zeresana sortu du**

Gaiak zeresana eman du azkenaldian kalean eta udalean. Azaroan sortu zen familien elkargunea, eta ordutik lanean ari dira euren beharrez berba egiteko. Gabeziak topatzeaz aparte, propo-

samenak lantzea da euren azken helburua.

Udal gobernuak gazteleku lez funtzionatuko duen gune bat sortzeko asmoa du, eta 2018ko aurrekontuko diru partida bat hori garrantzen hasteko erabiliko du. Oraindik ez dago proiektuaren inguruko informazio zehatzik, ideia aurreratu dagoela aitortu arren.

**Ikastetxeak zabaltzea**

Horrez aparte, ikastetxe publikoetako ordutegia handitzea eskatuko du udalak; Institutua eskolaz kanpoko ordutegian erabili ahal izateko ere bada asmoa. Eusko Jaurlaritzari

**Udal gobernuak gazteleku lez funtzionatuko duen gune bat sortzeko asmoa du**

egingo dio eskaera, gaia abenduko osoko bilkuran onartu eta gero.

Momentuz, Landako ikastetxeetako jolasgunean aterpea eraiki du udalak, eta eskolaz kanpoko ordutegian edozeinek erabiltzeko moduan dago. Bestalde, bihurtik aurrera, Kurutzia ikastolako jolasgunea zabalik egongo da kirol jarduerara dagoen zapatuetan, 14:00ak arte, eta astean zehar arratsaldean.

## Bertako produktuak erabilia, sukaldaritza tailerra egingo dute Atxondon

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Bertako eta sasoiko produktuak erabilia, sukaldaritza tailerra antolatu dute Atxondon, Akebaso jatetxean, urtarrilaren 25erako.

Berton Bertokoa dinamikak, Atxondo Guraso Elkarteak eta Akebaso jatetxeak antolatzen duten ikastaroan bi plater eta postrea izango dituen menua kordinatuko dute. Ostean, ikastaroan parte hartu dutenak afaltzeko batuko dira.

Antolatzailerek jakitera eman dutenez, ikastaroan izena emateak 35 euroko balioa du. Bestalde, izen-ematea urtarrilaren 22a baino lehen egin behar dela adierazi dute, 94 658 20 60 telefono zenbakira deituta.

## Frontoiko argia luzaroago piztuta egotea eskatu dute herritarrek

**MAÑARIA • J.D.**

Herritarrekin egindako batzar irekian, udal ordezkariak herritarren hainbat eskaera jasoz zituzten. Ondoren, ekintza planean sartu ahal izateko udalbatzarrean onartu zituzten, aho batez onartu ere.

Frontoiko argiak luzaroago piztuta egotea izan zen eskaera bat, 21:00ak arte, hain zuzen. Autobus geltokietan euria ari duenean pertsonak busti egiten direnez, uretik babesteko itxituraren bat egitea ere jasoko dute ekintza planean. Beste puntu bi Urrengoerrotako aldatza- ren goiko zatia asfaltatzea eta Etxebarri baserri azpiko farola konpontzea izango dira. Urek errekan eragindako narrak konpontzea ere jasota geratuko da planean.

## ‘Era’ prozesua amaituta, Durangoko EH Bildu berriua aurkeztuko dute

Bihar egingo dituzte bozketa eta emaitzen aurkezpena

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Durangoko EH Bildu Era prozesuan murgilduta egon da 2017ko martxotik, alderdia berritzeko eta Durangoko “herri proiektu bat” sortzeko asmoz. Bihar izan-

go da amaiera, Plateruenean. 11:00etatik 12:00etara botoa emateko aukera egongo da; 12:00etan talde hausnarketa egingo dute; 13:00etan emaitzen aurkezpena, eta 14:00etan bazkaria.

## ‘Erastop’ telefono aplikazioa Durangoz harago hedatuko da

**DURANGO • M.O.**

Durango eraso sexistak prebenitzeko sortutako aplikazioa Bilbon ere hasiko dira erabiltzen. Izan ere, Eudel udalerrien sareak beste udalei ere aplikazioa erabiltzeko aukera eman die. Horrela, Durangoz harago hedatuko da.

Aplikazioak ematen dituen aukeren artean, eraso baten biktima izanez gero larrialdi deia egiteko aukera azkarra ematen du, eta poliziak geolokalizazio bidez jakin ahal du emakumea non dagoen, laguntzera joateko.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko urtarrilaren 19a  
16. urtea - 705. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Elorrioko Txintxirri Ikastolako sortzaileak omendu dituzte, ikastolak aurten mende erdi bete duela ospatzeko

Urtarrilaren 10ean 50 urte bete zituen Elorrioko Ikastolak. Joan zen eguenean Arriola Antzokian egindako ekitaldian Txintxirrigaz urte hauetan guztietan lotura izan duten hainbat elementu kutxa batean sartu zituzten



Joan zen eguenean egin zuten ekitaldia, Arriolan.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1968ko urtarrilaren 10ean ireki zituen ateak Elorrioko Ikastolak, eta 50. urteurren hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Sortzaileei omenaldia eginda eman zioten hasiera urteurreneko ekitaldi sortari. Joan zen eguenean Arriola antzokia bete egin zen Txintxirri Ikastola sortu zutenei eskerrak emateko. Inork ez zuen ekitaldia galdu gura izan, eta hainbat ikasle eta irakasle, ikasle ohi eta guraso batu ziren.

Eguneko protagonista nagusiek ere ez zuten hutsik egin. Bertan izan ziren Jose Ramon Urizar, Feli Zugazagoitia, Adolfo Arriolabengoa, Maritxu Igarza, Jose Mari Urresti, Dominga Sarraoa, Jabier Garaizabal, Maria Angeles Pildain, Emilio

Torre, Trini Garaizabal, Manu Igarriburu, Narciso Gongeta, Pepi Arregi, Jose Luis Eriz, Jesusita Gongeta, Pablo Montoya, Mari Carmen Gongeta, Pedro Solozabal eta Carmen Orbegozo. "Ikastolako sorreran ibilitako asko ezin izan dira bertaratu, batzuei ezinezkoa egin zaielako eta beste batzuk hilda daudelako. Hala ere, denei eskerrak eman gura dizkiegu", adierazi zuten ekitaldiko aurkezleek.

Bestalde, egungo Ikastolako sortzaileek duela 50 urte jarri zituzten helburuak mantentzen dituztela nabarmendu zuten 50. urteurreneko ekitaldira bertaratutako guztiek, eta eskerrak eman zizkieten urte hauetan Txintxirrin lanean ibili diren kide guztiei.

Sortzaileei omenaldi hunkigarria egiteaz gain, urte hauetan guztietan Txintxirri Ikastolagaz lotura izan duten kideek ikastolagaz zerikusia duten hainbat elementu sartu zituzten kutxa batean. Kutxa hori itxita egongo da 25 urtez, eta orduan beste jai bat egingo dutela adierazi zuten.

## Hil aurretik zer egin hausnartzeko deia egin dute

Amankomunazgoak antolatzen duen ikastaro baten harira sortutako proiektua da. 20 lagunek hartu dute parte



Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaur egungo munduan parte hartzeko gakoak ikastaroaren baitan eskualdeko hainbat jubilatuk *Before I die* dinamika jarri dute martxan. Hori horrela, Elorrioko Kiroldegi aurretik igarotzen diren herritarrek hil aurretik zer egin gura duten idazteko aukera izango dute frontoian jarrita dagoen hausnarketarako horman.

Proiektu honen bultzatzaileek adierazi dutenez, Candy Chang artistak New Orleansen egindako ekimena erabili dute inspirazio iturri. "Norberarentzat bizitzan garrantzitsua denari buruz hausnarketa bat egitea bultzatzen zuen artistak, eta guk ere hori egin gura izan dugu", adierazi du

ikastaroan egon den Sara Egidazu elorriarrak.

Bestalde, Elorrioko Hilario Azkarate frontoitik pasatzen diren denei parte hartzeko deia egin diete. "Edozeinek, duen adina duela, parte hartu dezake dinamika honetan. Helburua komunikazioa eta adierazpena sustatzea dira eta", jarraitu du Egidazuk.

Eva Perez de Albeniz ikastaroko dinamizatzailea oso pozik agertu da ikastaroko 20 lagunek lan egiteko erakutsi duten kementa eta grinagaz. Gainera, ikasleek sortutako proiektu hau inguruko nolakoak garen erakusteko eta etorkizunerako ditugun asmoak gogotsu aurre egiteko proposa dela adierazi du.



"Eredu dualagaz enpresako beste kide bat zara"

Andoni Alcelay :: Informatikako Ingeniaritzako ikaslea

Andoni Alcelay durangarrak 21 urte ditu eta Informatikako Ingeniaritzako 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Arrasateko campusean.

**Zergatik aukeratu zenuen Informatikako ingeniari gizona? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Niri txiki txikitatik gustatu zait ordenagailuen mundua eta informatikaren bidez gauzak sortzea. Mondragon Unibertsitatearen metodologia erabat praktikoa asko gustatu zitzaidanez, bera aukeratu nuen.

**Nola balioetsiko zenuke orain arte bizi-tako esperientzia?**

Orain arte dena oso ondo joan zait. Irakasleek arreta handia jartzen dute ikaslearen eboluzioan, eta zerbait behar ez den moduan baldin badoa, ahalik eta gehien laguntzen dizute.

**Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Hasieran garrantzi handia ematen diote alde teorikoari, eta horren azterketa egiten da. Behin gaiari buruz oinarri sendo bat daukazunean, PBL (Project Based Learning) sistema sartzen da. Sei hilabeteko proiektu bat egiten da eta aurretik ikasitako guztia sartzen da. Fase honetan irakaslearen rola aldatzen da. Nolabait, bizimodua atera behar duzu proiektu hori aurrera eramateko eta, ahal den lekutik, informazioa eskuratu helburua lortzeko. Metodologia hau da unibertsitatea hobekien deskribatzen duena.

**Unibertsitatean, zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Gehien gustatu zaidana da konstantziagaz kurtsua ondo atera daitekeela. Metodologia honek ez da dena azterketa batean sartzen;

seihileko bakoitzean azterketa edo kontrol puntu dezente daude.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?**

Bigarren mailan Almisen hasi nintzen lanean, Oñatin. Lehen egunetik proiektu batean ibili naiz enpresako lantalde batean, beste kide bat lez.

**Zer nolako ekarpena egiten duzu eredu dualak?**

Niretzat eredu dualaren alde garrantzitsua da ia-ia gradua hasi bezain laster ikasten ari zaren guztia zozterako balio duela ikusten duzula eta, gainera, lan munduan sartzen zarela bete-betean. Hemengo jendeak ez duzu tratatu desberdina ematen ikaslea izateagatik, enpresako beste lankide bat zara.



# Trabakua gainean errepidea zeharkatuko duen tunela edo pasabidea egingo du aurten udalak

Irailerako proiektua prest izatea da udalaren asmoa, urri inguruan lanak hasteko moduan egon daitezten



Trabakua gaineko taberna parean dagoen autobus geltokia; auzotarrek errepidea zeharkatu behar dute Durangorako autobusa hartzeko.

**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

Trabakua gainean errepideak bitan zatitzen ditu Mallabiko lurrak. Batetik bestera igarotzeko, errepidea zeharkatu beharra dago, eta hori arriskutsu gerta daiteke. Izan ere, hainbat errei dituen errepide zabala da eta, horren ondorioz, ibilgailuak abiadura handian ibiltzen dira. Errepidea alde batetik bestera zeharkatzeko, azpiegituraren bat egitea izan da auzotarren aspaldiko aldarrikapena. Aldundiak ez duela egingo ikusita, udalak berak egitea erabaki du. Lanak aurten hasi eta amaitzea da asmoa.

“San Juan Goitako auzotarrek, esaterako, errepidea zeharkatu behar dute gaur egun Durangorako autobusa hartzeko. Abereak dituzten baserriarrek ere arazoak izaten dituzte bidea gurutzatzeko”, azaldu du Igor Agirre alkateak.

Pasabide bat egitea Bizkaiko Foru Aldundian aspalditik egin

izan duten eskaera dela azaldu du Agirrek. “2010eko batzar orokorretan mozio bat sartu zen gai honen inguruan, baina kontua hor geratu zen”, dio Agirrek. Iaz ere Aldundiko ordezkariekin batu ziren. “Eurek ez dutela egingo esan digute, ez dutela horretarako dirurik”, esan du.

**“ Errepide azpitik tunela edo gainetik pasabidea egitea da aztertu eta erabaki behar duten lehenengo kontua**

**Bide gainetik ala azpitik?**

Hasierako asmoa errepide azpitik tunel bat egitea zen. Izan ere, abereak gaineko pasabide batetik ezingo zirela igaro uste zuten. Baina, joan zen astean, arloko aditu bategaz batu eta egoki egindako

gaineko pasabide batetik abereak ere igaro zitezkeela esan zieten. Beraz, hartu beharreko lehenengo erabakia horixe da: lur azpiko tunela ala gaineko pasabidea egitea.

Pasabidea San Juan Goita auzora sartzeko bidegurutzeta baino apur bat harantzago hasiko litzateke, Markina alderago, Abadiño-Markina norabidean. Beste aldean, Trabaku Goiko tabernak duen aparkaleku inguruan irtengo litzateke tunelaren kasuan, eta ondoan dagoen mendi-muinora gaineko pasabidearen kasuan.

Aukera baten edo bestearen aldeko hautua egin ostean, proiektua egiteko prozedura abiatuko dute. Irail ingururako proiektua eginda egotea da asmoa. Horrela, lanak esleitu eta urrian obrak hasteko moduan izango direla aurreikusitako dute. Modu horretara, pasabidea amaituta egon daiteke 2018. urtea bukatu aurretik.

**Diru-laguntzak**

Udaleko diru-kutxako soberakina baliatuko dute proiektua aurrera eramateko. 2017ko kontuak martxo ingururako izatea gura dute. Orduan jakingo dute zehatz

**“ Aldundiak eurek ez dutela egingo esan digu, ez duela horretarako dirurik”, dio Igor Agirre Mallabiko alkateak**

-mehatz soberakinen atalean zenbat diru duten. Bizkaiko Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara —Landa-Garapen Sailera— diru-laguntzak eskatuko dituzte. Pasabidea egiteak bostehun bat mila euroko inbertsioa eskatuko duela estimatu dute alkateak azaldu duenez.

## Hasi dituzte danbor hotsek girotutako San Sebastian jaiak Bakixan

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Donien Atxa jasota hasi zituzten atzo San Sebastian jaiak Bakixan auzoan, eta asteburuari begira hainbat dira antolatutako ekitaldiak. Gaur bertso afaria izango dute, 21:00etan. Eneko Abasolo ‘Abarkas’, Gorka Lazkano eta Igor Elortza arituko dira. Ostean, Txapito Guzman eta Ibarako langostiniek taldeak joko du.

Gauerdian hasita, danbor hotsa nagusituko da bihar Txomin Bedarrak trikitalariek girotutako eguna. Aurretik, meza, igel txapelketa eta bakailao txapelketa egongo dira. Erromeria ere bai, Ansorregi eta Larrinagaren eskutik. Domekan meza —Iurretako koroagaz—, dantzariak eta asto probak egongo dira; briska txapelketa ere bai.

## Taxi Auzunearen erabiltzaileek txartela berri behar dute urtarrilean

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Datorren otsailaren 1etik aurrera Taxi Auzune zerbitzua erabili gura dutenek Iurretako Udalak emandako erabiltzaile txartel berria aurkeztu beharko diote gidariari. Jakitera eman dutenez, urtarrilaren 31 baino lehen berri behar da txartela. Aste barruan 07:30etik 20:00etara dago martxan zerbitzua, eta, zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara. Bidaia bakoitza euro bi dira.

2009an jarri zen martxan Taxi Auzunea “hiriguneko zerbitzuak baserri inguruetara hurbiltzeko”, eta bakoitzaren “ibilgailuaren erabilera arrazional bat” sustatzeko. 2017an 2.200 bidaia egin ziren. Zerbitzuagaz kontaktuan jartzeko 688 618 690 telefonora deitu daiteke.



**ESKAINTZA AKADEMIKOA**  
0 - 18 urtera arte  
HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA  
DBH • BATXILERGOA

**KURUTZIAGA IKASTOLA**

URTARRILAK 27, ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA 11:00etan, Harrera Haurtzaindegiko atarian. Puzgarriak egongo dira.  
**URTARRILETIK, AURREMATRIKULA ZABALIK**

Tel. 94 620 08 22 • [www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)









## Luhartz taldeagaz dantzatzeko aukera egongo da, zapatuan, Berrizko sanantonioetan

Berrizko Hiltegixe Gaztetxean kontzertuak antolatu dituzte gaur gauerako. Kontzertuak doakoak izango direla eta 22:30ean hasiko direla jakitera eman dute antolatzaileek

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzenaz geroztik jai-giroan murgilduta dabilta berriztarrak, eta astebururako ere egitaraua zabaldu dute olakuetarrek. Esaterako, zapatuan egun osoko egitaraua antolatu dute. 12:00etan, Olakueta frontoian, Lapsus Cabaret Zirkua egongo da eta, 17:00etan, L'Atelierreko dantzariak beraien saioa eskainiko dute. Ostean, nesken

frontenis txapelketa egongo da eta, iluntzean, Durangoko Luhartz taldeak erromeria eskainiko du.

Gaur, bestalde, sagardotegi ibiltaria eta odoloste-jana izango dituzte olakuetarrek.

Domekan urteroko barazki eta fruitu erakusketa egongo da probalekuan, eta frontoian artisau txokoa egongo da.

### Kontzertuak Gaztetxean

Bestalde, Berrizko Hiltegixe Gaztetxean hiru kontzertu egongo dira hilaren 19an. Bertan, Durangaldeko Tres 41 taldeak, Soriako Hard Taok eta Burgosko Nightshotek joko dute. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, kontzertuak 22:30ean hasiko dira, eta doakoak izango dira.



Luhartz taldearen erromeria 18:00etan hasiko da.

# Gremioen gida

anboto

### Zurgintza

leike aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

### Iturgintza



659 673 790  
unaigaray@yahoo.es

### Iturgintza

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862  
mallabiena@mallabiena.com

### Iturgintza



Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
ubide@euskalnet.net  
48200 DURANGO 188 PK.

### Iturgintza

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - GASA  
BEROGINTZA - AIREA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com  
692 859 779

Zubiurre, 8 IURRETA  
946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**  
944 071 791

### Garbiketa

**AZKARGI  
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goietza, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215

### Dekorazioa

**JAIO**barnizatuak

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com

### Zurgintza



Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
www.carpinteriaaterpe.com

### Dekorazioa

lehoak  
bilyak  
perlsianak  
eguzki-othalak  
elto-sareak  
eta behar duzun guztia



Morgaonda 1 - Elorrio  
aurskontuak@adendadekor.com  
689 738 443



# Txakurren araudia gogortu egin dute hiru txakur sei urteko ume bati eraso egiteko zorian egon eta gero

Olazar parkean txakurrak solte ibiltzeko debekuak jabeen haserrea piztu du. Udalak azaldu du herrigunean ez dagoela txakurrak solte ibiltzeko espazio aproposik



Ordenantzaren arabera, Olazar parkean ezin da txakurrik sartu.

## ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Zaldibarko Udalak aldaketak egin ditu araudian txakurren ordenantza gogortzeko. Udalak abenduaren amaieran egindako osoko bilkuran hartu zuen erabakia, alderdi guz-

tien adostasunagaz. Olazar parkean gertatutako eraso saiakera izan da udala neurriak hartzera bultzatu duena. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, Olazar parkean txakurrak ibiltzea debekatzea erabaki

dute. Gune hori atondu zutenean, txakurrek bertan egoteko baimena zuten. Orain, ordenantzaren aldaketagaz kontrako erabakia hartu dute. Hartara, auzolanean konpondu zuten parkean ezin da txakurrik

sartu. Alkatearen esanetan, parke honetara kirola egitera joateari utzi diote herritar batzuek, txakurrak solte dabiltzalako. Gertaera larri baten berri ere eman du. Uztailean, Olazar parkean hiru txakur sei urteko ume bati eraso egiten saiatu ziren. Zorionez, saiakera hutsean gelditu zen kontua. Hala ere, udalak neurriak hartzeko arrazoiak daudela azaldu du. “Pertsonen eskubideak lehenetsi ditugu. Herri-

## Zaldibarko ordenantzaren arabera, txakur guztiak herri osoan lotuta eraman behar dituzte jabeek

gunean ez dugu lurrik txakurrei bideratzeko”, gaineratu du alkateak.

## Txakurren jabeak, haserre

Txakurren jabeek kexa adierazi dute udalean, herrigunean ez dagoelako txakurrak solte ibiltzeko gunerik. Izan ere, Zaldibarko Udal ordenantzaren arabera, txakur guztiak herri osoan lotuta eraman beharko dituzte jabeek, eta arrisku-tsu moduan katalogatuta daudenei mozala jarri beharko diete. Gainera, udalean urtero berrituz behar izaten den txakurren aseguruak aurkeztu behar dutela udalean gogoratu du Baigorri alkateak.

## Hogei abadiñar batu dira udalak putzu septikoez hitz egiteko deitutako batzarrean

### ABADIÑO • A.M.

Udalak deituta, joan zen astean batzarra egin zuten bizilagunekin putzu septikoen ordenantza berriari buruz berba egiteko. Iñaki Rekalde Landa Garapen, Merkataritza eta Turismo arloko zinegotzia arduratu zen dudak argitzeaz. Ordenantzaren kopia bana eman zieten joan ziren abadiñarrei. “Herritarrek interesa agertu dute, batez ere diru-laguntzei dagokien atalean”, azaldu zuen. Iaz egindako garbiketarako laguntzeko, 5.000 euroko diru partida eskainiko du udalak; aldiz, putzu berriak egiteko, 40.000 eurokoa. Eskatzaile bakoitzak %50eko laguntza jasoko du, gehienez. “Ordenantza onartu eta publiko egin ostean egin ahalko dira eskaerak”.

## Zebrabidea hurreratu eta espaloia amaitzea proposatu du Aldundiak abiadura gutxitzeko

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Iazko urri inguruan, Izurtzako Udalak gutun bat bidali zion Aldundiari herriguneko errepi-detik pasatzen diren ibilgailuen abiadura gutxitzeko neurriak eskatzeko. Esaterako, biribilgune bat egitea edo radarrak jartzea eskatzen zuten. Aldundiaren erantzunak, ordea, ez ditu udalaren nahiak bete. Durangon, igerilekuetara sartzeko biribilgunearen irteeran dagoen zebrabidea Izurtza herrigunera gerturatzea eta txaleten aldeko espaloia amaitzea proposatzen dute. Oinezkoen segurtasuna hobetzeko bai, baina ibilgailuen abiadura gutxitzeko ez direla neurri egokiak uste du Lorea Muñoz alkateak. HAPO berria lantzeko tailerretan herritarrekin landuko dute gai hori.

# Ekuadorren laguntzeko erabiliko dute Errematan batutako diruaren erdia

Txorizo, gazta eta irasagarratik 40 euro eman dituzte enkantean, kiwi sortagatik beste 40, untxi pareagatik 25...

## GARAI • MARKEL ONAINDIA

San Anton egunez ohiturazko enkantea egin zuten Garain, herritarrek eramandako baserriko produktuekin. 990 euro batu zituzten guztira. Erdia elizako gastuetarako izango da, eta beste erdia Ekuadorrera bidaliko dute, laguntza lez.

Eguraldiagatik eliza barruan egin zuten enkantea, baina, giro onez. Txorizo, gazta eta irasagarra-

gatik 40 euro eman zituzten, kiwi sortagatik beste 40, untxi pareagatik 25, sagar pastelagatik 27...

## Plan orokorraz batzarra

Bestalde, datozen 20 urteetarako hirigintzako plana zehazten hasiko dira Garain. Hilaren 23an batzarrera deitu dute, 18:30ean, udaletxean.



Urtero lez, Lazaro Milikuak gidatu zuen enkantea.

# ALBERDI

## HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



Eraginkortasun energetikoaren Euskal Azoka

# berdeago energy

2018ko **URTARRILAK**  
**19, 20, 21**

SARRERA DOHAINIK

LANDAKO GUNEA  
**DURANGO**

[www.berdeago.com](http://www.berdeago.com)

ANTOLATZAILEA





TAZEBAEZ

BABESLEAK



DURANGO





# Alde Zaharreko birgaitze planak udalak eta Andresa Landak gauzatuko duten egitasmoko berezitasunak jasoko ditu

Aurtengo aurrekontuetan 42.000 euroko diru atala gorde dute Birgaitze Integralerako Plan Berezia egiteko

**OTXADIO • JOSEBA DERTEANO**

Otxandioko Udaleko 2018ko aurrekontuak aho batez onartu dituzte. 2.441.937 eurokoa da zenbateko osoa. Inbertsioetako bat (42.000 euro) Alde Zaharreko birgaitze plana erredaktatzeko izango da. Plan horretan, etorkizunean Andresa Landaren eta udalaren artean Artekale egin gura duten proiektua gauzatu ahal izateko zehaztapenak jasoko dituzte. Alde Zaharreko herritarrentzat ere plan onuragarria izango da, Aldundiko Ondare Sailagaz hartu-eman burokratikoak erraztuko dituelako.

Andresa Landa Fundazioak eta udalak proiektu garrantzitsu bat gauzatu gura dute elkarlanean. Artekale 1, 3 eta 5 zenbakietako orube edo eraikinak azpiegitura berriak sortzeko erabiliko dituzte. Fundazioak nagusientzako auzo etxe bat egin gura du eta udalak gaur egun dituen azpiegitura premiei erantzun gura die. Aurrekontuetan sartu duten birgaitze planak egitasmo handi horretako berezitasunak jasoko ditu. Esaterako, gaur egun Alde Zaharra monumentu multzo gisa izendatua du Eusko Jaurlaritzak. Araudi horretan partzela bi lotzea ahalbidetzen da, baina ez hiru. Udalaren eta Andresa Landaren proiektuak, ordea, hiru partzelari

eragiten die. Jaurlaritzagaz aldaketa hori tramitatuko dute, eta birgaitze planean jasota geratuko da. Egitasmoak duen berezitasun hori ez ezik, beste batzuk jasoko dituzte planean.

Era berean, herritarrei Aldundiarekiko hartu-eman errazteko balioko die planak. Alde Zaharreko etxean obrak edo aldaketak egiteko Aldundiko Ondare Sailaren baimena behar da eta, gaur egun, eremu horretako ordenamendu zehatz barik baimen horiek lortzea kosta egiten da. Beraz, burokrazia administratiboak arintzeko baliagarria izando da plana.

Aurten hasiko dira plana idazten, baina baliteke datorren urtera arte ez amaitzea.

**Andresa Landak nagusien auzo etxea egin gura du eta udalak azpiegitura premiei aurre egin gura die**

**Birgaitze plan berriagaz errazagoa izango zaie herritarrei Aldundian baimenak lortzea**



Artekale 1, 3 eta 5 zenbakietako orube edo eraikinetan gauzatu gura dute egitasmoa.

## Mainondoko ur depositua

Aurrekontuetan 100.000 euroko diru atala gorde dute edateko ur sarean hobekuntzak egiteko. Alde batetik, Mainondoko ur depositua automatizatu gura dute. Gaur egun, deposituak ura errekatik jaso, garbitu eta herritarrek erabiltzen ez dutena berriro errekarara isurtzen du. Ez du zentzurik. “Errekari ura kentzen diogu eta probetxurik bako gastu bat egiten dugu”, dio Urtzi Armendariz alkateak. Horregatik, sistema bat ezarriko diote, errekatik jasotzen duen ur kopurua

eskariaren arabera izan dadin. Hau da, behar den ur kantitatea bazarrik hartu eta tratatuko du.

Depositu horretara doan ura Atxingo iturburutik dator. Oletan dagoen iturburu horretatik Otxandiorako tarte batzuetan fibrazementuzko hoditeria dago, eta horiek PVC materialezko hodiengatik aldatuko dituzte osasunerako hobeak direlako.

## Oletarako espaloi zatia

Aurrekontuetako beste inbertsio bat Otxandiotik Oletara artean

egin gura duten espaloiko tarte bat egiteko erabiliko dute; Etxebarri-rainoko tarte egiteko, hain zuzen. 300.000 euro gorde dituzte zeregin horretarako. Proiektua eginda eta baldintza orria argitaratuta dagoela azaldu dute udal ordezkariak. Eskariak jasotzen ari dira, ondoren lanak esleitzeko.

Otxandioko frontoi azpian dagoen espazio bat gimnasio moduan eraberritzea da gauzatu gura duten beste proiektu bat. Horretarako, 100.000 euro bideratu dituzte aurtengo aurrekontuetan.

## Pertsianak margotu dituzte, merkataritzarako gune erakargarriagoa bihurtzeko asmoz

Txiki Otaegi kaleko 29 pertsiana atondu ditu udalak

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Zornotzako Udalak Txiki Otaegi kalean dauden hainbat dendatako pertsianak apaindu ditu. Proiektu hori Eusko Jaurlaritzak sustatutako Hirigune progra-


maren barruan dago. “Programaren helburua kale edo gune batzuk egokitu eta merkataritzarako erakargarriago bihurtzea da, beti ere azken helburua jarduera ekonomikoa bultzatzea

delarik”, azaldu du udalak ohar batean.

Horretarako, udaleko Ekonomi Sustapen eta Enplegu Sailak 29 pertsiana margotu ditu Txiki Otaegi kalean. “Auzokideek inguruan hobekuntzak egiteko egindako eskariari erantzuten die asmoak”, udalaren arabera. Apainketa lanak hiri-diseinuan aritzen den enpresa garrantzitsu batek egin ditu hilabeteko epean. Proiektua gauzatzeko 12.826 euro erabili dituzte.



Auzokideek hobekuntzak egiteko egindako eskaerari erantzun gura izan diotela dio Zornotzako Udalak.



2018. urterako txartelak berritu behar dira  
Urtarrilaren 31a baino lehen

**Iurreta**  
Elezateko Udala





ERAZ

## Harek denporak!

# GARAI ANIMALIEN BABESLEKU IZAN ZENEKOA

Jabi Maiztegik Animaliak Berreskuratzeko Zentroa zabaldu zuen Garain, bost urtez. Epe horretan, 4.000 animalia inguru pasatu ziren baserri horretatik. Bisitarien zikloa ere bazu. Urtero, zentroak 16.000 bisitari hartzen zituen. Askok gogoratuko dituzte zentroan bizi ziren tximinoek bisitariari egiten zizkieten trikimailuak. Animalia ugariak, baina, hegaztiak ziren. Jendeak hegazti

ugari eramaten zituen Maiztegi-renera, kotxeren batek jota edo tiroren bat hartuta, han senda zitzaten.

Garaiko espazioa, baina, txiki geratu zitzaion, eta Karrantzara eraman zuten zentroa. 1994ko martxoaren 11ko ERAZ aldizkariaren alean Maiztegi azaldu zuenez, uztailean Karrantzara lekualdatzeko proiektua zuten, espazio zabalago batera. J.G.

## Sei hankako mahaia

Dani  
Maeztu  
Perez  
EH BILDU



### Etxeak bizitzaz betetzeko urratsa.

Etxebizitzak eraikitzen lurzoru berria okupatzen jarraitu beharrean, gaur egun hutsik daudenak pertsonaz betetzea hobe litzateke. Gogoeta hau edonork babestuko luke. Are gehiago, udalean alderdi gehienek noizbat bota izan dute antzerako gogoeta. Hori bai, gogoeta edo desio hori praktikara eramaterako orduan, denak oztopoak izan dira. Zelan jarriko diegu gainzerga bat hutsik dauden etxebizitzei? Zelan definitu dezakegu juridikoki zer den hutsik dagoen etxebizitza? Eta antzerako galdera existentzialak egiten zizkiguten.

Kalean daukagun begiari kasu eginez, proposamen zehatz bati begira jarri dugu udal barruan daukaguna. Era horretan, hurrengo 6 hilabeteetan garatuko den enplegu planean 6 pertsona egongo dira Durangon hutsik dauden etxebizitzak erollda zehatza egiteko. Biztanleen erollda, horniduren kontsumoak eta ikuskaritzak erabilia, erollda zehatza osatuko da. Beraz, 6 hilabete barru aitzakien garaia atzean geratuko da eta benetako neurri zehatzak hartzeko denbora hasiko da. Guk argi daukagu eraikita eta hutsik dauden etxebizitzak biztanleekin betetzea etxebizitza politika eraginkorrena dela. Ikus dezagun gainerakoak ere hitzetik ekintzetara pasatzeko prest dauden.

## Durangaldea asteen

### Martxoaren 8an greba feminista egin gura du Plataforma Feministak

**Durango I** Durangoko Plataforma Feministak batzar zabalera deitu du urtarrilaren 21erako —11:00etan, Andragunean— Martxoaren 8ko ekitaldiak prestatzen hasteko. Greba ereduaz aztertu gura dute. “Greba iruditegi eta kontzeptua aldatu edota birpentsatu gura dugu; sare bat sortu, ikusezinak diren lanak ikustarazi, aitortza egun bat izan...”, esan dute oharrean. Hori horrela, emakumei batzarrean parte hartzeko deia egin diete.

### Emakumeek kulturaren duten lekua aztertuko dute Durangon

**Durango I** Hitzaldi ziklo baten bitartez, emakumeek kulturaren duten lekua aztertuko dute. Durangoko Bizenta Mogel Liburutegiak antolatutako ekimena urtarrilaren 25ean hasiko da, *Creadoras de cultura: más allá de la literatura* hitzaldiagaz.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bost berbaldir osatutako zikloa Josune Muñoz hizlariak zuzenduko du.

### Ramon Aldasoro euskal preso otxandiarra aske gelditu da 20 urteren ostean

**Otxandio I** Ramon Aldasoro euskal preso politiko otxandiarra aske gelditu zen. Etxeretek jakitera eman zuenez, 20 urteko espetxe zigorra bete ostean gelditu da aske Aldasoro.

Otxandiarra 1998an Miamin (AEB) espetxeratu zuten, eta azken urteak Murtziako espetxean eman ditu. Atzo espetxetik irten zenerako senide eta herrikideak zain izan zituen Aldasorok.



### Lauaxeta Ikastolan kafearen hondakinak erabiliz ostra perretxikoak lortu dituzte

**Zornotza I** Lauaxeta Ikastolako ikasleek kafearen hondakinak erabiliz ostra perretxikoak (pleurotus ostreatus) lortu dituzte. Ikastolak jakitera eman duenez, berrikuntza soziala helburu duen erakundearen proiektu batek bultzatuta, ikastetxeko hainbat gaztek ostra perretxikoak sortzeko lan egin dute.

Txikienak laborantza lanagaz arduratu dira, kafearen hondakinak mizelioekin nahasteaz. Bigarren hezkuntzakoak perretxikoak azaleratzeko beharrezkoak diren hezetan eta tenperatura baldintzak ematen diren ziurtatzeaz arduratu dira. Azkenik, batxilergoko ikasleek sortu diren perretxikoak aztertu dituzte.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

HELDUENTZAT  
**MAREN**  
Alaine Agirre  
2017

UME ETA GAZTEENTZAT  
**BATEK DAKI NONGO ERREGEA**  
Ariel Abadi  
2017

MUSIKA  
**ELE - LAUAXETA - LORCA**  
Jon Maia, Pitti & Gorka Hermosa  
2017



**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RRP: 145-13



# The Wilsonsen itzulera eta beste taldeen KD aurkezpenak izango dira Pott Produzioak jaialdiaren protagonistak

Txapito Guzman eta Ibarako Langostiniek, Storm eta The Wilsons taldeak arituko dira Platerueneko oholtza gainean; azken orduko ezbehar baten ondorioz State Alertak ez du joko; The Van berriztarrek joko dute beraien partez



The Wilsonseko kideak Lorentzo Recordsen.

**MUSIKA • A.M.**

Urte berriari gogoz ekiteko asmoz, produkzio propio bat antolatu du Durangaldeko Pott Produzioak

ekoiztetxeak. Jaialdi bat antolatu dute elkarlanean ari diren taldeen batera. Hain zuzen ere, artisten promozioa indartzea da lantal-

dearen lehentasuna. Horrela, Pott Produzioak jaialdia antolatu du biharko, hilaren 20rako. Bertan, Txapito Guzman eta Ibarako Lan-

gostiniek, Storm eta The Wilsons taldeek hartuko dute parte. Azken orduko ezbehar baten ondorioz, State Alerta taldeak ez du kontzertua eskainiko; The Vanek ordezkaturiko ditu. "Artistekin elkarlanean jaialdi bat antolatzea erabaki genuen, eta Plateruena horretarako leku aproposa zela erabaki genuen", azaldu du Gorka Bidaurrezaga Potti Pott Produzioakeko arduradunak.

Txapitoarrek eta Stormek iaz kaleratu zituzten beraien lehenbiziko lanak, eta horiek aurkezten ari dira Euskal Herriko hainbat lekutan. Lehenbizikoek festa bilakatzen dituzte beraien kontzertuak, euskal rantxerekin. Bigarrenak, osterara, rock doinuak jorratzen dituzte.

The Wilsons taldea estudiotik atera berritan iritsiko da Plate-

ruenera. "Lau abesti berri grabatu ditugu, baina oraindik ez dugu erabaki zein formatutan kaleratu," dio Pottik. Lorentzo Recordsek Berrizen dituen estudioetan grabatu dituzte kantak. Kontzertu berezia eskainiko dute, izan ere, urtean zehar aukera gutxi izan ohi dituzten taldeak elkartzeko. Iaz elkartu ziren azkenengoz, *Back Home Tour* izeneko birarako; Mañarian, Zaldibarren eta Abadiñon eskaini zituzten kontzertuak. State Alerta abadiñarrek beraien lehen diskoa izango denaren grabaketaren azkenengo fasean murgilduta daude.

Jaialdirako sarrerak bost euroan erosi ahal dira. Kontzertuak 20:30ean hasiko dira.

**Produkzio integrala**

Ikus-entzunezkoen munduan denbora egin ostean, Bidaurrezagak ibilbide propioari ekitea erabaki zuen 2016an. "Urteetan zenbait enpresatan lan egin ostean, nire kontura ekoiztetxe bat sortzea erabaki nuen", adierazi du. Arlo musikala jorratzen du nagusiki ekoiztetxeak.

## Kontzertua Durangon, Doinuzahar abesbatzaren 35. urteurrena ospatzeko

Urtarrilaren 27an izango da kontzertu berezia, Santa Ana elizan, 20:15ean, 'Urte askotarako!' lelopean




Plazan egurrezko estaldura bat jarriko dute, besteak beste.

**MUSIKA • A.M.**

Urtarrilaren 27ko emanaldi bereziagaz ospatuko du 35. urteurrena Doinuzahar kamera abesbatzak. Izan ere, talde durangarrak badu zer ospatu. Alde batetik, 35. urteurrena ospatzeko aukera izango da; bestetik, hasieratik elkarregaz abesten hasi ziren lagunek taldean jarraitzen dutela ospatuko dute. Doinuzaharreko hogeitaz hamar abestuko dute Santa Anan, musikari profesionalekin elkarlanean. Besteak beste, Ander Ertzilla, Maitane Abasolo eta Roberto Toledo musikarien laguntza izango dute. Doinuzahar abesbatza 1982an sortu zen, eta ia hasie-

ratik, Jose Luis Ormazabal aritu da zuzendari lanetan; egun, kantari dabil Ormazabal. Antonio Salcedo, Esther Hernandez eta Jesus Eiguren ere egon dira zuzendari lanetan, eta, iaiztik, Laura Nardi musika irakaslea da zuzendaria. Egun, 30 bat abeslarik osatzen dute taldea. Abesbatzak urte luzez abesten jarraitzeko asmoa duela agertu du Amaia Basauri kideak. "Urte gehiago jarraitzeko ilusioa daukagu, lagunekin abesten eta gozatzeko jarraitzeko! Horren adierazle da kontzertuaren leloa: Urte askotarako!". Mozarten *Vesperae Solenne de Confessore* obra prestatzen ari dira, Bilbon abesteko.

### LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
<b>GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK</b>			
17482707 / 17482715	Erakundeetan mendeko pertsonentzako jardueren antolamenduen laguntza (UF0128)	70	2018/01/18
17482708 / 17482716	Higiene- eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70	2018/02/19
17482709 / 17482717	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70	2018/03/19
17482710 / 17482718	Mendeko pertsonen animazio soziala erakundeetan (UF0129)	30	2018/04/30
17482711 / 17482719	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea (UF0130)	50	2018/05/14
17482712 / 17482720	Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak (UF0131)	50	2018/06/04
17482713	Erlazioa, komunikazioa eta behaketa mendeko pertsonarekin eta haren ingurunearekin (UF0124)	80	2018/03/21
<b>FABRIKAZIO MEKANIKOA</b>			
17482701	Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa (UF0456)	70	2018/04/24
17482730	Sistema robotikoen eta ikusmen-sistemen muntaketa eta abiarazteko equipo ondasunetan eta industria-makinetan (ROBOTIKA) (UF0461)	90	2018/04/23
17482704	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesua (TORNO Y FRESA) (UF0881)	80	2018/01/25
17482705	Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioaren CNC programaren egiaztapena eta optimizazioa (UF0882)	70	2018/03/06
17482644	Soldadura karbono-altzairuzko xafia eta profitez estalitako elektrodoekin eta oinarritzko elektrodoekin (UF1624)	90	2018/02/21
17482648	Hodiak fabrikatzeko planoen interpretazioa (AUTOCAD) (UF0494)	50	2018/02/08
17482646	Hodietako garapenen marrazketa (UF0495)	40	2018/03/06
<b>INSTALATZEA ETA MANTENTZEA</b>			
17482729	Linea automatizatuaren sistema mekanikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (UF0624)	70	2018/01/22
17482702	Linea automatizatuaren funtzionamenduen programazioa eta kontrola (UF0626)	70	2018/02/22
<b>PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK (LANGABETUAK)</b>			
17482639	Ekipo industrialaren mantentze-lanak eta muntaketa mekanikoa (enpresan praktikak) (IMAQ0108)	510	2018/01/22
17482634	Komunitate-dinamizazioa (enpresan praktikak) (SSCB0109)	490	2018/01/15
17482636	Elektrodo estali bidezko arku elektrikozko soldadurak egitea (MF0099_2)	400	2018/02/05

Informazio eta izen ematea:  
[www.lanbide.euskadi.eus](http://www.lanbide.euskadi.eus) (Prestakuntza, Kodea)  
[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com) (Lanerako formakuntza ikastaroak)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak. Beraz, datak orientagarriak dira



Telefonoak: 94 403 55 99 / 94 673 02 51  
e-maila: ikasi@fpzornotza.com / maranburu@fpzornotza.com



# “Umeak publiko gogorra dira; arin ikusten da zerbaitek funtzionatzen duen ala ez”

Anita Maravillasen txotxongiloek bizia emango diete Jon Braun eta Malintxe neba-arrebei. Bosgarren antzezlan du konpainiak, eta honegaz, Gijongo (Asturias) FETEN jaialdi entzutetsuan parte hartzeko aukera izango dute.

**ANTZERKIA** • ARITZ MALDONADO

**Bartzelonan sortu zuen Anita Maravillas konpainia Miren Larrea zornotzarrak, Pepe Otalen tailerrean txotxongilogintzan trebatzen ari zela. Domekan San Agustin kulturgunean eskainiko du Jon Braun antzezlan, estreinakoz.**

**Nondik dator Jon Braun obra sortzeko ideia?**

Hasieratik argi genuen umeen istorio bat kontatu gura genuela, munduan zehar umeek jasaten dituzten egoeren inguruan, baina beti ere ipuin tankeran. Irudi-

tu zitzaigun Jon Braunek aukera ematen zuela zoritxar bat ipuin tankeran kontatzeko.

Istorioren protagonistak Jon Braun eta Malintxe neba-arrebak dira. Kolonializazioaren gaiari nola egiten dioten aurre aztertzen da.

genekien nora iritsiko ginen. Helduentzako lan bat [Los Sueños de Leonor] egitea zen gure asmoa; festibaletan harrera oso ona eduki zuen, baina ibilbide laburreko lana izango zela ohartu ginen. Orduan, publiko familiarrarentzako zerbaitegiteko proposamena iritsi zitzaigun. Hasieran, gure dudak genituen, umeak oso publiko gogorra direlako. Umeek oso argi esaten dute zer pentsatzen duten, eta oso arin ikusten da beraiekin konektatzen den ala ez.

Anita Maravillas birsortu egin da ni atzera Bartzelonatik itzuli nintzenetik. Valentina han eta hemen bizi da. Gu bioz gainera, Ion Chavez dabil argizatze lanetan, Ivan Alonso zuzentze lanetan, Iñaki Ziarrusta eszenografia kontuetan, eta Fran Lasuen musika arloan. Hemen sustraitu gara jada.

**Noiztik duzu harremana txotxongiloekin?**

Antzerkia beti izan dut gustuko. Institutu garaian Markeliñegaz ikastaroak jasotzeko zortea izan nuen. Unibertsitate garaian, ostera, ipuin kontaketeekin hasi nitzen. Gero, Taupadan hasi nintzen lanean Aitor Ormaetxea zornotzarragaz. Bertan engantxatu ninduten panpinek; momentu horretan hasi zen betirako geratu den zerbaite. Ostean, Bartzel-

**Miren Larrea Murgoitio**  
Antzezlea

**Zornotza | 1981**

**Lan handia egon da atzetik, imajinatzen dut.**

Aurreko lana estreinatuta ostean, furgonetako orduetan zer kontatu gura genuen pentsatzen hasi ginen, zerk motibatu ahal gintuen bilatzen. Esan bezala, mundu osoko umeak ordezkatzeko lituzkeen zerbaite gura genuen, eta zerbaite lokala izatea, eta Imanol Urbietaren abestiak hori betetzen zuela iruditu zitzaigun. Guztira, prozesu osoa urtebetekoa izan da. Azkeneko lau hilabeteak izan dira aretoko lana, entseatzekoa.

**Azkeneko lau lanak publiko familiarrarentzat dira. Zergatik?**

2005ean Valentina Raposo eta biok Bartzelonako Pepe Otalen tailerrean elkartu ginenean ez

lonara joan nintzen eraikuntza ikastera eta, bertan, Valentina ezagutu nuen. Txotxongiloak nire sorkuntza artistikoagaz lotuta daude, nire adierazteko modua dira panpina hauek.

Etxean beti izan dugu gustuko antzerkigintza. Nahiko *teatroak* izan gara beti, bihotzez ofizioz baino gehiago. Amama bera nahiko *teatrera* zen, eta beti esan didate hortik datorkidala niri.

“

**Guztira, urtebeteko prozesua izan da; azkeneko lau hileak, ostera, aretoan egon gara, entseatzeko”**

—

“

**Beharrezkoa da edozein teknika ondo kontrolatzeko lehenbizi tailerretik pasatzea”**

—

**Gustukoago, sortzea ala manipulatzea?**

Guk beti diogu gure prozesuak tailerrean hasten direla, egur zati batetik. Valentina eta biok gaude trebatuta eraikuntzan, baina, bokazioz, bera da eraikitzailea. Beharrezkoa iruditzen zait tailerrean sartzea haria, bunrakua, eskularrua edo beste edozein teknika ondo kontrolatzeko. Niri, baina, gehiago gustatzen zait sorkuntza, istorioak nola kontatu eta abar.

## ‘Jon Braun’, Fetenen, Espainiako jaialdirik garrantzitsuenean, aurkeztuko du konpainiak

Otsailaren 18tik 23ra bitartean Feten jaialdi entzutetsua egingo da Gijonen (Asturias). Azken urteetan ohikoa bilakatu da euskal konpainia garrantzitsuenean bertan aurkeztea beraien lanak. Anita

Maravillas lehenbizikoz egongo da bertan, aurtan, Jon Braun lana aurkeztzen. “Estatuko jaialdirik garrantzitsuena da, eta guretzat nobedade handia da hori”, adierazi du Larreak. Aukeraz gainera,

aurrerantzean eman beharreko pausoak zehazteko lagungarria dela azaldu du. “Erreferentziakoak diren konpainiek bertan aurkeztu dituzte euren obrak”, bukatu du.



**DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**  
**CEPA DURANGO HHI**  
**Doako irakaskuntza ofiziala**

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253  
www.epadurango.hezkuntza.net

### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

### IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



**MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253**  
www.epadurango.hezkuntza.net

**MATRIKULA-EPEA: Urtarrilaren 15etik otsailaren 2ra**

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00  
Ostiralean: 09:00-13:00



## Bi urte eta erdiko lozorrotik itzartu, eta eztanda egingo du ostera Kilaueak, gaur

Hawaiiko menditik datorkio izena talde atxondarrari; AteneON ekimenaren baitan arituko dira gaur gauean Elorrioko aretoan, Mocker's hirukote durangarragaz batera



Jokin Larrea, Ioritz Alejo, Jon Revilla eta Asier Alejo dira Kilauea,

### MUSIKA • ARITZ MALDONADO

2015eko irailean Imperial State Electric talde suediarraz Bilboko Kafe Antzokian eskaini zuen Kilauea laukoteak orain arte beraien azken kontzertua izan dena. Arrazoi

pertsonal eta laboralen ondorioz gelditu egon ostean, gaur kontzertua eskainiko dute Elorrioko Ateneon; AteneON ekimenekoek deia piztu du sua. "Itzulera egongo zela argi genuen, baina berpizte honetan

zerikusi zuzena izan du AteneON ekimenak. Indarra eman digu, eta gure planak aurreratzea eragin du", azaldu dute taldekideek. Behin mar-txan jarrita, epe luzerako planak ere egin ditu rock taldeak. 2018ko euren helburu nagusia beraien hirugarren lana izango dena grabatzea eta kaleratzea da. "Inoiz baino gogo gehiagotzat geroz. Entsegu lokalean sartuta gaude lan berria prestatzen, eta diskoa grabatzea da gure helburua. Bitartean, ahalik eta kontzerturik gehien emango ditugu", adierazi dute. Gogotsu itzuli arren, ez dute presagaz ibili gura. "Estudioa zapaltzea dugu helburu, baina ez dugu plan zehatzik, gauza bakoitza bere momentuan etorriko da, eta argi dugun gauza bakarra Rock&Rolla da", esan dute.

Kilauea 2010ean jarri zuten mar-txan Ioritz Alejok (gitarra eta ahotsa), Jokin Larreak (bateria) eta Jon Revillak (gitarra). Baxua jotzeaz Asier Alejo arduratzen da orain. "Oso ondo egokitzen ari da taldera, eta espero dugu urte askotan horrela izatea. Geu Gara Kilauea". Zortzi urte hauetan bi disko kaleratu ditu laukoteak, biak autoekoiztuak. 2011. urtean *Rock* izenekoa lehenbizi, eta 2014an *Sonic Chaos* kaleratu zuten. Eskandinabiarrak ukituko rock doinuak jorratu zituzten bertan.

Ateneoko taula Mocker's-eko lagunekin partekatuko du Kilaueak itzulera kontzertu honetan. "Asko poztzen gaitu Mocker's-eko gure lagunekin jotzeak, harreman oso ona baitugu bi taldeen artean". 2011. urtean kontzertu sorta eskaini zuten bi taldeek elkarregaz, eta ordutik oroitzen onak dute guztiek. "Garai hartan kontzertu batzuk lotzen lagundu ziguten, eta oso berezia da guretzat berriz beraien elkartzeko", dio Ritxi Blanco Mocker's-eko kidea. Hirukote durangarra iaz kaleratu zuten *Beats of Freedom* aurkezten ari da.

### Geure Durangaldea

Ainhoa Urien Telletxea  
Ikaslea



### Ikimilikiliklik

Kafea sutan utzi dut eta ordenagailuaren aurrean eseri naiz entretenitzeko asmotan. Barikua. Bazkalosteko ordu hilak. Bat-batean, orduak ez ezik denbora ere hil zait begien aurrean Artzeren heriotzaren berria irakurri dudanean. Ordu hiletan denbora hil dit hildakoaren notiziak.

Herio bezainbeste bizi. Hilda bizi direnak eta bizirik hiltzen direnak. Bizitzaren eta heriotzaren artean halako amildegia sumingarria marrazteak ez digu onik egiten, ez. Gertatzen delako gero, uneoro, eta ez dugu espero, eta sorpresaz harrapatzen gaitu eta harritzen gara. Beti beste aldean kokatzen dugulako, haratago, ikusten ez diren lurraldeetan. Heriotza bizitza bera ez balitz bezala.

"Bizitzaren atea dukegu heriotza; Heriotzaren ataria dugu bizitza" Nola adierazi daiteke hobeto?

Eta hantxe, pantailaren aurrean zurr, lur eta harri eginda nengoela, Anbotoko lagunena deia, ea idatziko nukeen aste honetarako. Bai, lasai. Eskerrik asko.

Eta hantxe, momentuan sentitu zer idatzi, eta besterik gabe idatzi. Ez naiz originalegia izango, baina bai zintzoa neure gogoekiko. Nik ere niretik idazten dut, Artzereriko miresmenetik, bere magia eta zirrara gorpuztua, ttipitansunaren izpiritua, izatearen misterioa; berarengandik dudana iruditik, kriskitin batekin identifikatzen dudana zer edo zerekin. Ikimilikiliklik.

Segituko nuke etengabe idazten, oroitza egitearen atseginean murgiltzen, baina kafeak irakin du honezkerok.

## V. Maketa Lehiaketan parte hartzeko izen-ematea, zabalik

Izena ematea [gazteinfo@ametx.eus](mailto:gazteinfo@ametx.eus)-era idatziz egin behar da; taldekideen erdiek 16-35 urte artean izan behar dute

### MUSIKA • A.M.

Martxan dago Zornotzako V. Maketa Lehiaketan izena emateko epea. Hiru sari banatuko dituzte: 1.500 euro talderik onenarentzat, 500 euro euskarazko abesti onenarentzat, eta Zornotzako jaietan jotzeko aukera. Izena emateko

azkeneko eguna otsailaren 28a izango da (20:00ak baino lehenago). Lehiaketa diskorik argitaratu gabeko taldeei zuzendurik dago. Iazko edizioan Durangaldeko The Van taldeak irabazi zuen lehiaketa, eta 1.500 euroko saria.



Iazko finalistak, tartean, The Vaneko kideak.

## 'Guria Ostatua' lana aurkeztuko du Ruper Ordorikak Plateruenean

Domekan, 19:00etan hasiko da emanaldia; sarrerak 12 euro balio du aurrez, eta 15 leihatilan erosiz gero.



23 lan kaleratu ditu Ordorikak.

### MUSIKA • A.M.

Durangoko kulturgunera itzuliko da musikari oñatiarra bere taldeagaz batera. *Guria Ostatua* osatzen duten hamaika abestiez gainera, bere diskografiako abesti klasikoak ere joko ditu Ordorikak.

Diskoa New Yorken grabatu zuen oñatiarrak, hango hiru musikarigaz. Jamie Saft, Kenny Wollesen eta Tony Scherr izan zituen alboan lau eguneko grabazioan. Elkar diskoetxeak argitaratu du *Guria Ostatua* lana.

**El tanguito de Mamá**  
Kukulan taldea  
Urtarrilaren 20a, 20:00etan

**Jon Braun**  
Anita Maravillas & Portal 71  
Urtarrilaren 21a, 18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
Durangoko Udalak

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · [sanagustin@durango.eus](mailto:sanagustin@durango.eus)

[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)

**PLATERUENA**

**PLATERUENA Kafe Antzokia**  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
[jaltetxea@plateruena.net](mailto:jaltetxea@plateruena.net)

**FESTIVAL**  
URTARRILAK 20. ZAPATUE  
BURUNDI PLATERUENA KAFE ANTZOKIA  
19:00-20:00


**Urtarrilak 20 20:30etan**  
**POTT PRODUKZIOAK FESTIVAL**  
Kontzertuak

**Urtarrilak 21 19:00etan**  
**RUPER ORDORIKA**  
Kontzertua

**Urtarrilak 28 18:00etan**  
**AMAMA**  
Filmes



# INGURUMEN GEHIGARRIA



ZELULOSAZKO ONTZIAK  
BIODEGRADAGARRIAK  
ETA BIRZIKLAGARRIAK



[www.soul-cemosa.es](http://www.soul-cemosa.es)



# cemosa

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.L.

Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)  
Tel.: 94 623 17 17 - Faxe: 94 623 17 99





# EUSKALDUNOK, INGURUMENAK GEHIEN ARDURATZEN GAITUEN EUROPARREN ARTEAN

Berdeago, Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka, ardura horiek jorrazteko lanean ari da 2018ko azokan.

Euskadik du ingurumenarekiko ardura tasa altuenetarikoa. Horrela erakusten du Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako "Biztanleriaren jarrera ingurumenarekiko" 2017ko ikerketak. Bertan, elkarrizketatuen %100ek ingurumenaren babesari garrantzi handia ematen dietela azaltzen da. Suedia eta Europar Batasuneko beste herrialdeetako erantzunen pare egon da.

Hori dela-eta, ulergarria da Berdeago, Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azokaren moduko jardunaldiek urtez urte duten arrakasta. Iaz 17.000 bisitari baino gehiago bildu zituen, eta 2018rako Berdeagoren aurreikuspena handitu egin da ikusleak erakartzen dituen dena jaso dezan.

Ikerketa honekin jarraituz, txostenak dio etxebizitza erosterakoan energiaren sailkapenari garrantzi handia ematen

diola euskaldunen erdiak. Bestalde, autoaren modelo aukeratzekoan, %53ren ardurarik nagusia da autoak zenbat kutsatzen duen. Kotxeen eta beste garraio moten kutsadura Euskadiko ingurumen arazorik garrantzitsuenetakoa da. Hala ere, inkestak aitortutakoaren arabera, kezka handia dago baliabide naturalak –petrolio eta gasa, besteak beste– agortzeari buruzko ezjakintasunaren inguruan.

Linea honetan Berdeago Energy, efizientzia energetikoaren Euskal azoka lagungarri izango da efizientzia energetikoari, mugikortasun jasangarriari eta ingurumen berrikuntzari buruzko produktu eta azken berriak ezagutarazteko. Profesionalentzako bisita perfektua da, baina baita erabiltzaile eta azken kontsumitzaileentzako ere, etxebizitzetan aurrezpen energetikoa suposatzen duen aldaketarik egiteko prest dauden

horientzako; adibidez, biomasa galdarabaten instalakuntza edota isolamendu termikoa. Hitzordua Durangoko Landako Gunean izango da, urtarrilaren 19an, ostiralean, 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:30era; urtarrilaren 20an, larunbatean, 10:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara; eta urtarrilaren 21ean, igandean, 10:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Sarrera dohainik izango da.

Bestalde, eta erosketa ohiturez ari garelara, Eusko Jaurlaritzako ikerketan euskaldunen %59k aitortu zuen produktu lokalak eta gertukoak erosteko ohitura dutela. Jende horren erdiak produktu ekologikoak erosten ditu noizbehinka, 2013. urtearekiko datua 3 puntutan igozten delarik.

Joera hauek ikusita, Berdeago Naturek, ekologia eta kontsumo arduratsuen

azokak, ingurugiro iraunkortasunaren inguruko elikadura ekologikoa eta km0, ekonomia soziala, ongizatea, gizarte ekintza eta bestelako sektoreetako profesionalak bilduko ditu. Elikadura ekologikoan, baratzeko produktuetan edota hirugarren sektore sozialean interesaturik daudenek Durangoko Landako Gunean aukera paregabea aurkituko dute urtarrilaren 27an eta 28an kalitatezko produktuak eskuratu eta kontsumo arduratsuko eta jasangarriago bat egiteko. Artikulu hauen zaleak urtarrilaren 27an joan ahal izango dira azokara, larunbatean, 10:00etatik 21:00etara eta 28an, igandean, 10:00etatik 20:30era. Sarrera dohainik izango da egun guztietan.

Azkenik, txostenean Euskadiko herrien ingurumen arazo garrantzitsuenen ranking bat agertzen zen. Hauexek dira bertako datuak: gehiegizko hondakinak %10, kutsadura orokorra %12 eta autoen eta bestelako garraio bideen kutsadura %20. Inkestak iritzi, uraren kutsadura izan beharko litzateke gure ardurarik garrantzitsuenak, eta gero airearena eta aldaketa klimatikoarena. Gauza hauek guztiak lantzeko, Berdeago azokan foodtruck, aktibitate eta ludotekaz aparte, hitzaldi interesgarriak aurkituko ditugu publikoaren informazioa eguneratzeko. Ikusmin handiko jardunaldi hauek gure planeta leku iraunkorrago bat bihurtzeko helburua izango dute.



# Ingurumenagaz jasangarriagoa den auto elektrikoa aurkeztuko du Iurreta ikastetxeak

Ikastetxeko bost heziketa zikloko 40 ikaslek jardun dute elkarlanean proiektu horretan

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

*Erronken bidez elkarlanean.* Lelo horri eutsita, ingurumenagaz jasangarriagoa den kotxe elektrikoa aurkeztuko du Iurreta ikastetxeak Berdeago Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azokan. Automozioan, administratzen, elektroniketan, informatikan eta mekanizazioan diharduten 40 ikaslek elkarlanean landu duten autoa erakutsiko dute Landako Gunean jarritako erakustokian. 2014an sortutako Gallanda proiektuaren jarraipena da, Ana Barturen ikastetxeko ordezkariak azaldu duenez. Proiektu hura “hobetzen” lan egin dute ikasleek.

1953an Doñiturri y Estancona fabrikari egin zuten ‘Estancona’ modelo ardatz hartuta, kotxe elektrikoa egin zuten Iurreta ikastetxean duela hiru urte. Durangon 1953an fabrikatu zen kotxea da berau, eta Madrilen homologazioa

**2014an sortutako Gallanda proiektuaren jarraipena da. Hura hobetzen lan egin dute**

**Heziketa ziklo bakoitzak dagokion alorrean egin du lan proiektuaren hobekuntzan**

lortu bazuen ere, ezin izan zuen seriean fabrikatzeko lizentziarik lortu, orduan azaldu zuten moduan.

### Elkarlana oinarri hartuta

Heziketa ziklo bakoitzak dagokion alorrean egin du lan proiektuaren hobekuntzan. Hartara, administratzaileak administrazio kudeaketaz arduratu dira eta automozioak autoaren motorraz eta horri lotutakoez. Mekanizaziokoek

egitura, gurpilak, suspentsioa... izan dute langai, eta elektronikako ikasleek, berriz, klaxona, keinukariak, kotxea ireki eta ixteko modua... Informatika heziketa zikloko ikasleek mugikorak emandako aukerak aztertu dituzte. Besteak beste, eguzki-energia lortzeko plaka jarri diote autoari, eta haize-sorgailu bertikala ere bai.

Barturenen berbetan, “ikasleek erronken bitartez lan egitea da proiektuaren helburua, eta arlo desberdinen arteko erlazioa erakustea”. Lantaldean ikasten dute ikasleek. “Helburu, proiektu edota erronka bat jartzen zaie, eta hori lortu behar dute elkarregaz lan eginez, euren trebetasuna eta abileziak erabiltuta”, adierazi du Barturenek. Horrela, “elkarren artean lana partekatu egin daitekeela erakutsi gura zaie”, gaineratu du.



Heziketa ziklo bakoitzak dagokion alorrean egin du lan Argazkia: Iurreta ikastetxea



AHOLKULARITZA PROFESIONALA

BERRIKUNTZAK DITUGU

AZKEN BELAUNALDIKO PINTURETAN

PINTURA EKOLOGIKOETAN

ORBANEN KONTRAKO PINTURETAN

TABIRA COLOR

ZATOZ GU BISITAZERA ETA INFORMATZERA

Montorretas Ind. 9-F Pab. DURANGO

Tel.: 946 217 911





IURRETA

**Tellitu-n  
hurrengo  
eraikuntza**

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta  
trastelekua barne

**Etorri  
ikustera!**

DURANGO  
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren  
2 etxebizitzak!**

*Durango herrigunean*

*Energia eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)



# “Baratzeari buruz ez badakizu, ezin zara kultua izan; jakintsua izan zaitezke zeozertan, baina jantzia ez”

Jakoba Errekondok hitzordu bikoitza izango du Durangaldean datorren asteburuan; Arte eta Historia Museoan 26an eta Berdeago azokan 27an

**BARATZEA** • JONE GUENETXEA

Ortuan lanean dabiltzanek aholkulari eta erreferente dute Jakoba Errekondo. Eguraldia, sasoi, landare motak, kokapena eta beste hainbat faktore tartean daudenean, bi gehi bi sekula ez dira lau izaten baratzean. Oraingoan, baina, Errekondok hitzordu bikoitza du Durangaldean entzuleen galderei erantzuteko. Hitzez eta Ahotsez ekimenak lurra hartuko du, aurten, ardatz moduan. Horregatik, sarrera hitzaldira Jakoba Errekondo gonbidatu dute. Urtarrilaren 26an izango da, 19:00etan, Arte eta Historia Museoan. Bestalde, Berdeago azokan ere egongo da, urtarrilaren 27an, eguerdian.

**Azken urteetan baratzeari duen garrantzia eman diegu?**

Inolaz ere ez. Inguruan landarea lantzeko baztertuen dugun tokia izango da. Baserriari buruz pentsatzerakoan, gure imaginarioan askoz garrantzi gehiago eman diegu mahastiei, belazeei, basoei, sagastiei, fruitu arbolei... Inguruko baserriari buruz galdetzen baduzu, esango dizute han esnea egiten dutela, bestean ardiak dituztela, harantzago sagardoa egiten dutela, edo haragitarako behiak dituztela. Etxe guztietan dago baratzea, eta ez du inork aipatzen. Zergatik? Lan hori emakumeek egin dutelako. Gizonezkoek egiten dituzten gauza handiei eman zaie garrantzia. Eta egunero-egunero behar dugun baratzea, horrek duen konplikazio guztiagaz, ez da kontuan hartu. Aldiz, orain mundu guztiak gura ditu baratzeak. **Baratzeari buruzko jakintza hori emakumeek dute, beraz.**

Bai, jakintza izugarri hori emakumeek gorde dute. Harro egotekoa da. Horrek, gainera, kulturen ere garrantzi handia du, bai hazien aukeraketan eta baita bertako barietateak mantentzeko egiten den lanean ere.

**Leku askotan herri baratzeak bultzatzen ari dira, baita kontsumo taldeak ere. Loraldi bat bizitzen ari gara?**



**Jakoba Errekondo Saltzamendi**  
Agronomoa eta paisajista  
**Usurbil | 1961**

Baratzea hiritartzen ari da. Hirietan bizi da euskaldun multzorik handiena. Beraz, mugimendu horiek oso interesgarriak eta oso beharrezkoak dira. Hirietan bizi den jendeak jakin behar du zenbat denbora behar duen letxuga batek hazteko. Horri balio bat emateko garrantzitsua da ezagutza hori izatea. Durangoko Azokan egon nintzenean mundu guztiari letxuga landare bat oparitu nion. Neguan letxuga bat landatzen baduzu, azokako sasoi horretan, kanpoan eta normal badator, hiru edo lau hilabete beharko ditu jateko. Gero, prezioari buruz eztabaidatzen dugu, 70 edo 80 zentimo ordaindu behar ditugun. Kalitatezko produktuak gura ditugunean, ezagutza hori garrantzitsua da, zein mimo eta zein koste duen jakiteko. Gizartearentzat zein ekarpen egiten duen ere ezagutu behar da, paisaiaren, elikadura osasuntsuaren, inguru-

menaren, zaintzaren eta bizitza kalitatearen ikuspuntutik.

**Krisiak zein eragin izan du elikaduraren burujabetzan?**

Jendea, baliabide murriztagoekin, beste modu batera pentsatzen hasi da. Esate baterako, eguberritan nire herriko fruta-dendan gereziak

“**Baratzeko lana baztertuta egon da, lan hori emakumeek egin dutelako**”

—  
“**Baratzea hiritartzen ari da. Hirietan bizi da euskaldun multzorik handiena**”

egon dira salgai. Hemeretzi euro kilo. Txiletik ekartzen diren gereziak dira. Guk dirurik ez badugu, txiletarrei ez zaie hona esportatzea interesatuko. Guretzat inportantea da jakitea bertan noiz ditugun sasoi eta kalitatezko gereziak. Udaran. Krisiak birkokatu egin du jende asko, eta gauza askoren balioaz jabetu dira. Hau da, elikadura gastatu behar badut, izan dadila elikadura osasuntsu eta kalitatezkoa, eta ekonomia zirkularra sustatzen duena. **Elikadurari lotuta, jaten ditugun produktu horien inguruko ardura sumatzen duzu?**

Erosten dugunaren arabera, gero eta jende gehiagok argi du ekologikoaren alde egin behar dugula. Eta horrek jasangarritasunagaz, lurragaz eta arnasten dugun aireagaz lotura du.

**Kulturak eta lurak ere badute lotura bat.**

Zalantzarik gabe. Kultura hitza *cultibaretik* dator, lurra lantzetik. Orain dela 5.000 urte hemen lurra lantzen hasi ez bagina, oraindik tximinoak izaten jarraituko genuke. Ez genuke ez hizkuntzarik ez arkitekturarik izango. Hau da, lurra lantzeak ahalbidetu du kultura. Beraz, norbaitek lurra landu izan duelako dute sormenerako aukera poeta, idazle eta musikariek, eta hori gogorarazi gura izan nien azokan. Eta beraiek elikatzen direlako. Horregatik, lurra eta kultura gauza bera dira. Kultura guztiaren oinarria lurra da.

**Euskaldun bat ez da benetan kultura baratzeari buruz ez badaki. Zeuk esana dela diote.**

Baratzeari buruz ez badakizu, ezin zara kultura izan. Argi eta garbi. Kultura lurra bada, eta lurrari buruz ez badakizu... jakintsua izan zaitezke zeozertan, baina jantzia, ez.

**D3 arquitectos**



Elkartegia. Landako 4. Durango  
T. 94 681 23 11  
info@d3arquitectos.com

www.d3arquitectos.com

Durango kokatutako arkitektura bulegoa, irisgarritasun eta energia-eraginkortasun irizpideak erabiliz eraikinen erosotasuna hobetzeko berriztatze eta birgaikuntzan adituak.

Emitza hoberena lortzeko helburuarekin obra garapen osoan aholkatuz auzo komunitate eta partikularrekin lan zuzena.

Esperientzia zabal:

- Eraikin osoen birgaitzea.
- Fatxada zein teilatu energia birgaitzeak.
- Igogailu instalakuntzak zein irisgarritasun hobekuntzak.
- Txosten teknikoak (ITEak, EZEak, peritazioak...).
- Diru-laguntzak zein lizentzia tramitazioak.

Konpromisorik gabe kontsultatu.





## “Alternatiba baino, tendentzia izatea da gure helburua”

Umeentzako arropa ekologikoa saltzen egongo da Berdeago Nature azokan Rebecca Afuye, eta, gainera, salmenta sare baten berri ere emango du 28an, 17:00etan



Madrilen egiten du lan Afuyek.

### MODA • MARKELOAINDIA

Urtebete arteko umeentzako arropa ekologikoa produzitzen du Rebecca Afuye madrildarrak, Bebeau markaren bidez. Beste ekoizle batzuek batera, Ecofashiontruck sarean sortu du, kontsumo taldeei arropa

saltzeko. Ingurumenarekiko errespetua eta bidezko merkataritza bultzatu gura dituzte.

Ecofashiontruck sarearen berri ematera zatoz. Zelan sortu da zuen proiektua?

Ekoizleen azoketan elkar ezagutzen joan gara, eta udatik hona ari gara elkarlanean. Txikiak gara, eta beharrezanetik sortu da sare. Etekinerako tarreak oso txikiak izaten dira guretzat, lehiakorak izatea gura izanez gero prezio oso baxuak

ezarri behar ditugulako. Prezio errealean ipinita, gaitza da saltzea, beste moda batez alderatuta karuagoa delako. Bezeroari prezioa merketzeko bide bat da sare, dena baten eran erosi ahal delako. Kontsumo taldeei saltzen diegu, eskaera handia eginda produkzioa bermatzen digutelako. Eskaera egin eta hiru hileko epean fabrikatzen dugu. Horrela, ia %30eko deskontua egin dezakegu. Momentuz, Madrilko taldeekin ari gara, baina Bizkaian ere baditugu kideak. Gura duenak kontsumo taldean eskaera ere sartu dezake.

**Bezeroak kalitatean igarriko du alde, ezta?**

Ez da bakarrik kalitatea. Filosofia batean ere bat egiten dugu Eco-fashiontruckeko kideok. Material ekologikoagaz egiten dugu guztia, normalean kotoi organikoagaz. Ingurumenagaz errespetuzkoa den laborantza batetik dator, eta ez da gai kimimorik erabiltzen. Aparte, bidezko komertzioan sinesten dugu; ez dago umeen zein helduen inolako esplotaziorik, ez plantazioan ezta eskulanean ere. Gainera, gure azala kaltetzen ez duen arropa bat ere bada. Nik urtebete arteko arropa egiten dut, eta ama ere bainaizen aldetik, oso garrantzitsua iruditzen zait gai kimikorik ez edukitzea eta alergia-erreak ez eragitea. Kotoi hau leunagoa da gainera.

“**Bidezko komertzioan sinesten dugu; ez dago umeen zein helduen esplotaziorik**”

■ **Normalean ez dugu jakiten lehengai nondik datorren eta zein baldintzetan ekoiztu den. Nondik lortzen du zue zuek?**

Sareko beste batzuek eta nik neuk Gironako enpresa bati erosten diegu kotoia, proiektu oso polita baitute. Brasilen kotoiaren plantaziotik bizi den herri batez akordio on bat dute, errespetuzkoa brasildarrakiko.

**Beraz, esan daiteke zuen proiektua alternatiba bat dela.**

Bai, baina alternatiba baino, tendentzia izatea da gure helburua. Europako herrialde batzuetan nahiko barneratuta dago moda hori, jendeak arropa ekologikoa normal erosten du, batez ere umeentzako arropa denean. Nik uste dut merkaturak eraldatzen joango dela, gure inguruan gertatzen denaz kontzientziaz izango garelako. Planeta kaltetzen duten tindagaiekin umeentzako egindako kamiseta 3 euroan erosteak axolako digu. Espainiar estatuan oraindik informazio asko falta da.

## Tokikoa kudeatzen dugu, globalean pentsatzen dugu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak planeta babesteko eta pertsonen ongizatea bermatzeko lan egiten du, **Garapen Iraunkorreko Helburuen** mandatu orokorrari jarraiki, bereziki, seigarrenari: guztiontzako ur garbia eta saneamendua.



**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia  
[www.consorciodeaguas.eus](http://www.consorciodeaguas.eus)





## Herrietako estaldurak, errekei bizia kentzen dieten elementuak

URA Euskal Agentziak eta Elorrioko Udalak Toloto erreka berbideratzeko lanak egingo dituzte, aurtan, elkarlanean

### URA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Naturak eskaintzen dizkigun altxorrik preziatuenetarikoa dira ibaiak, eta hauek zaintzea ezinbestekoa da. Arlo horretan lanean buru-belarri dabilta URA Euskal Agentziako kideak. Eskualdean, esaterako, proiektu garrantzitsu bat dute esku artean, Elorrioko Udalagaz elkarlanean.

Duela pare bat aste jakitera eman zutenez, aurtan Toloto erreka berbideratzeko lanak egingo dituzte. Errekak duen estalduraren zati bat kenduko dute, bere sekzioa handitu, eta bi aldeak lotuko dituen zubia eraikiko dute. “Elorrio uholde arrisku handiko eremua da. Beraz, ezinbestekoa da Toloto errekekako lanak egitea”, adierazi du Eneko Albizurik, URA Euskal Agentziako kideak.

Albizuriren hitzetan, ibaiaren estaldura kenduta segurtasuna nabarmen handitzen da, eta emari handiagoa izateko ahalmena emango zaio ibaiari. “Egun Toloto errekek estaldura duen tartean, kabitzen den ur-emaria baino gehiago biltzen da, eta ur-emari horrek goian eta inguruan dauden etxebizitza eta eraikinetan kalteak eragin ditzake”, aitortu du URA Euskal agentziako kideak

Hala ere, lan hauek burututakoan ere uholde arriskua egoten jarraituko duela esan du, “beti baitago arrisku minimo bat”.

### Herri azpitik doazen ibaiak


Egun Euskal Herrian hainbat erreka igarotzen dira hiri eta herrien azpitik. Estaldura horiek ibaiari egitura arrotzak egiten zaizkiola esan du adituak, eta egitura horiek kalte handiak eragiten dizkiotela adierazi du.

Bestalde, ibai batek, bizirik irauteko, ibaiertzeko tokiko lan-

**Momentu honetan Elorrio uholde arrisku handiko herria dela jakitera eman dute URA Euskal Agentziako kideek**

**Eneko Albizuriren hitzetan, hiri edo herrien azpitik igarotzen diren errekek ez dute inolako bizirik izaten**

darediak ematen dion gerizpea behar duela aitortu du Albizurik, ez estaldura batek ematen dion iluntasuna. “Egun Toloto bezalako erreketan ez dago inolako bizitzarik, eta ibaietan bizitza egotea ezinbestekoa da. Beraz, berriro bizirik egoteko, estaldurak kendu behar dira”, bukatu du Albizurik.



## Edonora begiratuta ere, energia-eraginkortasuna ikusiko duzu

Energiaren Euskal Erakundearen 35 urte daramatzagu lanean, Euskadik beharrezko duen energiarekin bakarrik egin dezan aurrera. **Energia iturri berritzaileen, berriztagarrien eta onenen** aldeko apustua egiten dugu. Bitarteko tekniko eta giza baliabide onenekin. Ahalegin hori, denbora luzearen ondoren, **non-nahi ikus dezakezu.**

### 35 urte energiaz blai



Toloto erreka estaldura barik igarotzen da Ugarte auzotik.



# Ziurtagiriak lortuta sinesgarritasuna irabazi du etxeak eraikitzeke erabiltzen diren lastozko moduluen sistemak

Lasto konpaktatuak duen isolamendu ahalmenari esker energian %90era arte aurreztu daitekeela azaldu dute proiektuaren sustatzaileek

## EKOERAIKUNTZA • JOSEBA DERTEANO

Lastoak material ahula eta erraz su hartzen duena dirudi. Eta halaxe da ale txikitan bananduta bada. Baina ondo eta gogor pilatuta, egoera aldatu egiten da. Hartu lasto eskukada bat eta zanpatu, trinkotu; sartu ahalik eta lasto gehien bolumen jakin batean. Bestela esanda, eman ahalik eta dentsitate handiena lasto kopuru jakin bati. Orduan, material trinkoa eta suari luzaroan eusten diona bihurtuko da.

Gasteizko Ecopaja enpresak sistema hori darabil etxeak eraikitzeke. Hormak egiteko moduluek lastoa dute osagai nagusienetakoa: egurra kanpoaldetik eta barrualdetik, eta 45 zentimetroko lastozko fardoa erdian. Hainbat arlotan sistema eraginkorra dela diote: pisu handiari eusten diola, suari aurre egiten diola eta isolatzaile ona dela. Baina esatea ez da nahikoa. Jendeak galderak egiten ditu, dudak ditu: Zenbat pisuri eusten dio? Zelan da posible lastoak suari aurre egitea? “Mesfidantza eragiten zuen”, azaldu du Jose Veiga Ecopajako arkitek-



Zamudion, Diman, Zeanurin eta Ajangizen eraiki dituzte, besteak beste, lastozko moduluekin egindako etxeak.

to teknikoak. Beraz, egin behar-ko garbi zegoen; sinesgarritasuna irabaztea. Modulu estandar batzuk diseinatu eta laborategietan probak egiten hasi ziren ziurtagiri ofizialak lortzeko. Emaitzak espero zituztenak baino hobek direla diote. Horiekin fitxa teknikoak eratu

dituzte bezero potentzialei euren produktuaren ezaugarri zehatzak erakusteko. Berdeago azokan hitzaldia eskainiko dute fitxa horiek helduleku nagusi dituztela.

Suari dion erresistentziari dagokionez, probek honako hau demostratu dute: 150 minutura arte-

ko erresistentzia izan dezakeela, araudiak 30 minutuko exijitzen duenean. “Jendea harritu egiten du datu horrek”, dio Veigak. Baina, zelan da posible? “Lastoa hain konprimatuta dago ezen ez duela oxigenorik, eta oxigenoa da sua elikatzen duena”. Eta egurrari dagokionez?

“Egurak altzairuak baino hobeto eusten dio suari. Bero handiak altzairuaren propietateak moldatzen ditu eta ahuldu egiten da. Egurrari dagokionez, erreparatu adibide honi: basoko suteetan zuhaitzak erretzen direnean, oraindino erabilgarri egoten dira. Izan ere, egurra karbonizatu egiten da, ez dio oxigenoari pasatzen uzten eta, ondorioz, suari kosta egiten zaio aurrera egitea”, azaldu du Veigak.

Moduluen trinkotasunari dagokionez, 32 tonari (kilonewton metro karratuko) eusteko kapaz da.

## Isolamendua

Barrualdea kanpoaldetik isolatzeko duen ahalmena da, beharbada, moduluen ezaugarri baliotsuena. “%90 era arteko aurrezpen energetikora heldu daiteke”, dio Veigak. Hezetasunari aurre egiteko ahalmena ere nabarmendu du. “Egurraren kanpotik karezko morteroa darabilgu, antzinako erromatarren antzera. Honek, zementuak ez bezala, baporeari igoratzen uzten dio. Eraikinak arnasa hartzen du”.



Gaur egun 40 bat ume hartzen ditu, egunero, lastozko moduluekin egindako eraikinak.

## Txintxirri ikastolak lastozko moduluekin egindako haurreskola du 2015az geroztik

Eraikin “goxoa” dela dio Dabid Cobos zuzendariak; “Sartzerakoan, bertan geratzeko gogoia ematen du”

## HEZKUNTZA • JOSEBA DERTEANO

Elorrioko Txintxirri ikastolan lastozko moduluekin egindako haurreskola eraiki zuten 2015eko ikasturte hasierarako. Gaur egun 40 bat ume hartzen ditu egunero. Eraikinagaz gustura daudela adierazi du Dabid Cobos ikastolako zuzendariak. “Eraikin goxoa eta atsegina da. Sartzerakoan, hantxe geratzeko gogoia ematen du. Negan epela da eta udan freskoa.

Lastozkoa eta egurrezkoa delako, argitasuna duelako, eraikitzerakoan orientazioa zaindu zelako... denagatik izango da”, azaldu du.

Bere sasoian, bioeraikuntzan eta bioarkitekturaren aditua den EcoHabitat aldizkariak erreportaje luzea idatzi zuen Txintxirriko bioeraikin proiektu berriaren gainean. Hainbat ikastetxerentzat deigarria izan dela eta jakin-mina eragin diela ere azpimarratu du Cobosek.

“Eraikina bera zein han darabilgun metodologia pedagogikoa bertatik bertara ezagutzera etorri izan zaizkigu. Pozik eta harro gaude”, gehitu du.

## Auzolana

Eraikitze prozesuak hainbat fase izan zituen. Tartean, auzolana bideratu zuten. Enpresa batek tailer batzuk antolatu zituen eta hainbat jende batu zen deialdi zabalera, ingurukoak zein Euskal Herri osoak. Haien ahaleginari esker eraiki zituzten hormak.

www.ventaion.com

**ION**  
leihoak

EGUN BATEAN ISOLATUKO DIZUGU ETXEA

**THERMOFLOC**  
Isolatze Sistema Adimenduna

“EZ XAHUTU zure DIRUA”  
AURREZTU GUREKIN

ATEAK | ARMAIRUAK | LEIHOAK | ESKAILERAK | ZORUAK | KANPOKO AROTZ-LANAK

Telleria, 4 - Pab,11- Aramaio bidea // Telf: 943 79 11 35 // 20500 ARRASATE // arrasate@ventaion.com







San Jose Ikastetxea



## ATE IREKIAK

Urtarrilaren 26an  
arratsaldeko 15.30ean eta  
urtarrilaren 27an goizeko  
11.00etatik aurrera

## ZATOZ GU EZAGUTZERA

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org  
www.informazaitez.eus/ateirekiak



18  
urte



16  
urte

14  
urte



12  
urte

10  
urte



8  
urte

6  
urte



4  
urte

2  
urte


0  
urte





# Itzala

Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena zortzi hauen artetik?



Sartu [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus) web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

# Esaera



## Txerri gosetiak...

- ... potoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amets bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak lagun

Untxiak ez du barazkirik jan nahi eta gorde egin da. Lagundu amari ezkutalekuraino heltzen, belarrietatik heldu behar du eta.

# Otordua







[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

## Zeeer?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?! Konturatu zara? Alderantziz ari da hizketan... Esaten ari denari taxua hartzen ez badiozu, jarri orria ispiluaren aurrean eta berehala asmatuko duzu esaldia.



Etiketarik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



lore gorria



dordoka



tutua edo biberoia



erlea



## ZUHATZEKO ETXOLA

Ea aurkitzen dituzun beste elementu hauek ere:

- Txiklela
- Pelloziriren ordenagailu eramangarria
- Bi tximeleta
- Eskuargi bat
- Barraskilo bat
- Igela
- Plastikozko ur botila
- Hontza
- Txerrikumea
- Sugea

**AZ** *ideiak*

JOSTAILU DIDAKTIKOA  
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

.. Alluitz, 7 DURANGO ..  
azideiakdenda@gmail.com

INFORMA ZAITEZ: 688 726 424



Jostura  
Eskulanak  
Scrapbook  
Pachwork  
Kakorraz  
Marrazketa tailerra  
Sormen tailerra  
Ahozko ingelesa  
garatzeko tailerra

HAINBAT  
TAILER







## Tres41 Hiltegixen

BIRA AMAIERA  
BERRIZ :: Urtarrilak 19

### “Resilientes Tour” amaiera

‘Resilientes’ diskoaren bira etxean hasi eta bukatu gura izan dute berriztarrek. Horrela, Hiltegixen eskainiko dute kontzertua gaur, 22:30ean. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako hainbat lekutan egon da laukote berriztarra bere hardcore doinuak zabaltzen. Hard Tao eta Nightshot taldeekin batera arituko dira gaur.

### Urtarrilaren 19an

**IURRETA deialdia**  
Goiuria ikastolako guraso ohiak elkartzeko batzarra, 19:00etan lehen deia, 19:30ean bigarrena, Ibarretxen.

**IURRETA ipuin kontaketa**  
Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadogaz, 17:30ean 3-4 urte bitarteko umeentzat (nagusi bategaz); 18:00etan 5 urtetik gorakoak, Iurretako herri bibliotekan.

**ZORNOTZA ikastaroa**  
‘Kontu leku’ Aitor Ormaetxeak dinamizatuta, urtariletik martxora, barikuro, 3 eta 4 urtekoentzat 17:30ean; 5, 6 eta 7 urtekoentzat 18:30ean, Zelaieta Zentroan.

**DURANGO ipuin kontaketa**  
‘Una habitación propia’ Tania Muñozegaz helduentzako ipuin kontaketa, 19:00etan, Bizenta Mogel udal bibliotekan.

**DURANGO hitzaldia**  
‘Nola heldu naiz ni honaino’ liburuaren inguruko berbaldia Kattalin Miner idazleagaz, 18:00etan, Andragunean.

**ZALDIBAR deialdia**  
‘Afari mexikarrak’, Castet elkartean.

**ELORRIO afaria**  
‘Gazte afaria’, 21:30ean, gaztetxean.

**ELORRIO afaria**  
Kilauea eta Mocker’s, 22:30ean, Ateneon.

**URRETA musika**  
Txapito Guzman eta Ibarako Langotinuak taldearen kontzertua, afalostean, Bakixan.

### Urtarrilaren 20an

**DURANGO deialdia**  
EH Bildu berriaren aurkezpena, eztabaida eta bozketa, 11:00etan hasita, Plateruenean.



**BERRIZ musika**  
Worth It eta We Ride taldeen kontzertua, 21:30ean, Kultur Etxean.

**ABADIÑO antzerkia**  
Alfonso Sastreren ‘La taberna fantástica’, Errota kultur etxean.



## Bakixako jaiak

BERTSO AFARIA  
IURRETA :: Urtarrilak 19

Atzo hasi ziren jaiak, eta segida izango dute asteburu osoan Iurretako kofradian. Gaur, 21:00etan, bertso afaria egongo da Eneko Abasolo ‘Abarkas’, Gorka Lazkano eta Igor Elortza bertsolariekin.

**DURANGO musika**  
‘Pott produkzioak’ jaialdia. Storm, The Van, The Wilsons eta Txapito Guzman & Ibarako langostinuen taldeen kontzertua, 20:30ean, Plateruenean.

**ELORRIO musika**  
Zesura eta Kultu Kultibo taldeen kontzertua, 22:30ean, gaztetxean.

### Urtarrilaren 21ean

**DURANGO musika**  
Ruper Ordorika, 19:00etan, Plateruenean.

**ELORRIO hitzaldia**  
‘3rok Australian’ Urdin Ugartegaz, 17:30ean, gaztetxean.

**DURANGO antzerkia**  
‘Jon Braun’ antzezlan, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

### Urtarrilaren 22an

**BERRIZ ikastaroa**  
‘Antzerki ikastaroa’ Patricia Urrutiaren eskutik, 18:30-21:30, Kultur Etxean.

### Urtarrilaren 23an

**ABADIÑO emanaldia**  
‘A propósito de Schmidt’ zine forumean, 17.00etan, Errota kultur etxean.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



## 'Elorrio osasuntsua', martxan

**DEIALDIA** | Elorriko Udalak 'Elorrio Osasuntsua' ekimena jarri du martxan herritarren artean kirola sustatzeko asmoz. Urtarriletik ekainera bitartean, hile bakoitzean domeka batean egingo duten ekimenean sei ekintza ezberdin egingo dituzte.

Ahalmen eta kirol ezaugarri anitzak lantzeko asmotan antolatatu dituzten jardueri domekan emango diete hasiera, urtarrilaren 21ean. 11:00etatik 13:30era bitartean, herriko plazan batuko dira haurrak.



## Lurra protagonista, 5. Hitzez eta Ahotsezen

**JARDUNALDIAK** | Lurra aukuratu dute bosgarren Hitzez eta Ahotsez literatur ekimenerako gaitzat antolatzaileek. Aurrekoetan bezala, auzolanean ekin diote ekimena antolatzeari. Hain zuzen ere, Hitzez eta Ahotsez, lurragaz bezala, haziak aukeratzen eta lurra landuz eta ongarriz lortuko baita uzta biltzea. Kasu honetan, urtarriletik maiatzera artekoa izango da lanaldia.

Urtarrilaren 26an emango zaio hasiera aurtengo ekitaldiari. Jakoba Errekondo arduratuko da literatur ekimena martxan jartzeaz 'Lurretik landareak, landareak lantzetik gu jantzi' hitzaldiagaz. "Lurra ondo jagoten ikasteko, nor maisu hoberik Errekondo baino?", diote antolatzaileek.

**'Lurretik landareak, landareak lantzetik gu jantzi' Jakoba Errekondoren hitzaldia.** Urtarrilaren 26an, 19:00etan, Arte eta Historia museoan.

**Solasaldi dialogikoa.** Otsailaren 21ean, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

**Solasaldi dialogikoa.** Martxoaren 21ean, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

**Ipuin kontaria.** Apirilaren 20an, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

**Jendaurreko irakurraldia,** maiatzaren 4an, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

**ZALDIBAR emanaldia**  
**'Gernikaren Egiak' dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia,** Castet elkartearen.

### Urtarrilaren 26an

**BERRIZ antzerkia**  
**Glu glu konpainiaren 'Alizia lurralde miresgarrian',** 18:15ean, Kultur Etxean.

**ELORRIO hitzaldia**  
**Bertso afaria,** 21:30ean, gaztetxean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Ele!! Lorca-Lauaxeta',** 20:15ean, Zornotza aretoan.

### Urtarrilaren 27an

**DURANGO irteera**  
**Bertso afaria,** 21:30ean, gaztetxean.

**BERRIZ antzerkia**  
**Tanttakaren 'Soka' antzezlana,** 20:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO antzerkia**  
**'Alicia despues de Alicia' antzezlana,** 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ELORRIO emanaldia**  
**'Elkarrekin-Together' pelikula, eta ostean, Angel Oiarbidegaz solasaldia,** 18:30ean, Arriolan.

**DURANGO jaialdia**  
**'Garajetik' jaialdian Etsipen, Ikarass eta The Van taldeen kontzertuak. Ostean, Gora Etorrigaz festa,** 21:00etan, Sorginola gaztetxean.

### Urtarrilaren 28an

**ELORRIO hitzaldia**  
**Errepresioaren inguruko eztabaida,** 17:00etan, gaztetxean.

### Otsailean zehar

**DURANGO ikastaroak**  
**Adikzioen prebentziorako zerbitzuek antolatutako ikastaroak,** Durangoko Amankomunazgoko ikastetxeetan. Izen-ematea urtarrilaren 19ra arte zabalik. Deitu 94 620 05 20 telefonora edo idatzi [prevencion.mdurango@bizkaia.org](mailto:prevencion.mdurango@bizkaia.org) helbidera.

### Urtarrilaren 10etik 31ra

**ELORRIO erakusketa**  
**'Tanger Dream' Txelu Angoitiaren argazkiekin,** Iturri kultur etxean.

### Urtarrilaren 15etik otsailaren 9ra

**ZORNOTZA deialdia**  
**Emakume Nekazari eta Artisauen XXI. Azokan parte hartzeko izen-emate epea zabalik,** Eskariak Gizarte Ekintza Sailean aurkeztu beharko dira, 08:30etik 14:30era (Nafarroa Zentroko 1. solairua) edota posta elektronikoko bidez [berdintasuna@amorebieta.net](mailto:berdintasuna@amorebieta.net) helbidean.

## Urtarrileko agenda

19

**"BAKIXAKO JAI BATZORDEA"**  
**21:00 Bertso afaria** "Abarkas - Lazkano - Igor Elortza" Ondoren, Rock taldea "Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek"  
**"IPUIN KONTALARIA"**  
Iurretako Herri Biblioteka  
**17:30** 3 - 4 urte bitartekoak, heldu batez lagundurik  
**18:00** 5 urtetik gorakoak

20

**"BAKIXAKO JAI BATZORDEA"**  
**11:00** Meza  
(Egunean zehar "Txomin bedarrek" trikitilariet giroa alaituko dute)  
**18:00** Igel txapeketa  
**21:00** Bakailao txapelketa  
**24:00** Danborrada (Ondoren, erromeria)

21

**"BAKIXAKO JAI BATZORDEA"**  
**11:00** Meza Iurretako Koroak abestuta / Jarraian, dantzariak / Ondoren, Asto probak (Anarketa-Jabi Elordui-Zatxibar)  
**17:00** Briska txapelketa  
**17:00** Maiztegi Herri Eskolako dantza taldea

22

**"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA-GIZRTE ONGIZATEA"**  
**18:15** Emakumeen literatur tailerra

23

**"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"**  
**18:30** Frantsesezko irakurketa kluba

24

**"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"**  
**10:00** XL irakurketa kluba

## Zinema

:: **Berriz** KULTUR ETXEA

**Paddington 2**  
barikua 19: 18:15  
domeka 21: 17:00

:: **Durango** ZUGAZA

· **Los archivos del pentágono**  
barikua 19: 19:30/22:00  
zapatua 20: 19:30/22:30  
domeka 21: 18:45/21:15  
astelehena 22: 18:30/21:00  
martitzena 23: 20:00  
eguztzena 24: 20:00

· **Insidious. La última llave**

barikua 19: 19:30/22:00  
zapatua 20: 19:30/22:30  
domeka 21: 18:45/21:15  
astelehena 22: 18:30/21:00  
martitzena 23: 20:00  
eguztzena 24: 20:00

· **El instante más oscuro**

barikua 19: 19:30/22:00  
zapatua 20: 19:30/22:30  
domeka 21: 18:45/21:15  
astelehena 22: 18:30/21:00  
martitzena 23: 20:00

· **La panda de la selva (euskaraz)**

zapatua 20: 17:00  
domeka 21: 16:30

· **Salvando al reino de Oz**

zapatua 20: 17:00  
domeka 21: 16:30

:: **Elorrio** ARRIOLA

· **Wonder**  
zapatua 20: 22:00  
domeka 21: 20:00

· **Tadeo Jones 2**

**El secreto del rey Midas**  
domeka 8: 17:30/20:30

:: **Zornotza** ARETOA

· **Thi Mai: Rumbo a Vietnam**

barikua 19: 20:15  
zapatua 20: 19:30/22:00  
domeka 21: 20:00  
astelehena 22: 20:15

· **Sola en casa**

zapatua 20: 17:00  
domeka 21: 17:00



# “Sarritan esan digute eztabaidak izango genituela autoan, baina ez da gure kasua”

Asier Araiztegi eta Izaskun Badiola senar-emazteak dira eta auto lasterketetan elkarregaz dabilta, pilotu eta kopilotu



**Asier Araiztegi Mendibe**  
Auto pilotua  
Mallabia | 1990

**Izaskun Badiola Bernaola**  
Kopilotua  
Lekeitio | 1991

Iaz Bizkaiko bigarren maila irabazi zuten eta Euskal Herrikoan hirugarren geratu ziren. Aurten talde bat sortzeko asmoa dute.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

**Bikote batean konfiantza garrantzitsua bada, zer esanik ez senarra auto lasterketako pilotua bada eta bere emaztea kopilotua. Bataren agindu zehazketan eta bestearen trebezian sinestu behar dute. Datoren asteetan kirol munduko senitartekoen edo familia harremanen gaineko elkarrizketak argitaratuko ditu ANBOTOK, eta honako hau sailko lehenengoa da.**

**Asier, gazteagotan auto klasiko bat erregalatu zizuten.**

**A.A.:** Bai. Debako lagun batek Citroen Dyane 6 bat oparitu zidan, AK 400 modeloa, furgoneta estilokoa. Jendeak barre egiten zuela-eta hasieran lotsa ematen zidan, baina gustua hartu nionean neuk egiten nien barre besteei. Azkenean, saldu egin genuen, arriskutsua ere baze-

lako: Markinan gora 40 kilometro orduko abiadura joaten ginen, eta 100etik gorakoan pasatzen gintuzten ondotik. Sustoak hartzen genituen.

**Beraz, abiadura sentsaziorik ez zenuen auto haregaz.**

**A.A.:** Ez pentsa, beharbada abiadura sentsaziorik handiena auto harexegaz geneukan. Gogoan dut bihurguneetan Izaskun alde batera eta bestera mugitzen zela, zaldiko-maldiko batean moduan.

**Zelan hartu zenuten auto lasterketan aritzeko erabakia?**

**A.A.:** Betidanik ametsa izan dut, baina, garestia zela-eta ez genuen ezer begiratzen. Behin berbetan genbiltzan, eta beroaldi batean Izaskunek esan zidan: “Zergatik ez duzu auto bat alokatzen eta lasterketa batean parte hartzen?”. Autoak begiratzen hasi ginen lagunekin eta Ford Fiesta bat aurkitu genuen. 150 zaldi ditu, eta bere klasekoek 180 bat. Ez da lehiakorra eta inork ez zuen gura. Erosi egin genuen.

**Eta plan horretan noiz animatu zen Izaskun kopilotu izatera?**

**I.B.:** Probatzea erabaki nuen. Bere ametsa zen, baina nirea ere bai hein batean. Hasieran ez nekien gustatuko zitzaidan edo lehenengo bihurgunean autotik jaisteko eskatuko nion!

**Zelan ikasten da ezerezetik abiatuta kopilotuaren eginbeharra?**

**I.B.:** Aketza Santakolomagaz harremanetan jarri ginen, hark bazuelako esperientzia, eta argibideak eman zizkidan. Ondoren, geure aurrera ikasi dugu, ni bere ezaugarrietara moldatu naiz, eta alderantziz. Gehienbat autodidaktak izan gara.

**A.A.:** Izaskunentzat ahalegin bikoitza izan da. Afizio berezirik ez zuen batek lanketa hori dena egitea, alboan esertzea, argibideak zehatz ematea... meritu itzela dauka.

**Orain urte bi estreinatuta zineten Lea Artibaiko San Miguel lasterketan eta ez zen gura moduan irten...**

**A.A.:** Lehenengo tartean ez nuen gozatu: ahoa lehor-lehor neukan,

tentsio itzela, lentillak sikatu egiten zitzaizkidan... aurrekorik ere ez nuen ikusten. Baina, tira, egin genuen. Bigarren tartean hobeto sentitu nintzen eta denborak ere dezente hobetu genituen. Zelako poza! Horrela heldu ginen bigarren egunera. Eta zer gertatuko, eta bihurgune batean bazterra jo nuen lehenengo tartean. Ordukoa baino sentsazio eskasagorik! Ez diot sentimendu hori inori desio. Gehien izorrratu gintuena da suabe ibiltzeko eta ikasteko mentalitateagaz irten genuela. Eta begira. Azkenean, desilusioa ez zen guretzat bakarrik izan, baita abentura honetan lagundu ziguten denentzat ere.

**I.B.:** Lehenengo rallyak irakatsi zigun mundu honetako alde ona eta txarra. Biak batera, eta denbora gutxian. Nik ez dut orotzapen txar-txarrik. Ikasteko balio izan zigula uste dut.

**Pilotua eta kopilotua senar-emazteak izateak zer abantaila eta desabantaila ditu?**

**A.A.:** Abantailarik handiena elkarregaz dugun konfiantza da. Beste pertsona batez, bildurratik edo, gauzak ez dira argi esaten sarritan, edo ez zara ausartzen dena esatera. Konfiantza baduzu, bada-kizu esan dezakezula eta ez dizula txartzat hartuko. Bakadizu zelan jokatu behar duzun. Jende askok esan digu auto barruan eztabaida asko izango genituela, baina, egia esanda, ez da izan gure kasua. Desabantailak? Ez dakit desabantaila den, baina lasterketa hasieretan batzuetan pentsatzen dut ez noala bakarrik, biok gaudela barruan eta segurtasun baremo batzuen barruan ere gidatu behar dela.

**Errepidean gertatzen dena errepidean geratzen da, ala etxera ere heltzen da?**

**A.A.:** Etxera ere heltzen da, bai.

**I.B.:** Sarritan ez duzu deskonektatzen. Azken batean, ez da lasterketetan gertatzen dena bakarrik. Auto bat errepidean jartzeak lan handia dakar, babesleengandik hasita. Beste mundu horrek eztabaida gehiago eragiten dizkigu.

**Euria egin badu eta errepidea arriskutsu badago, biotako nor da “hobe topera ez joatea” esaten duena?**

**I.B.:** Normalean, ni. Asier euripean oso ondo dabil eta konfiantza ematen du, baina sekula ez da jakiten.

**A.A.:** Inoiz esan izan dit astiro noala eta sakatzeko!

**Imajinatu egoera hau: kalera irten eta bat-batean Asier beste kopilotu batez entrenatzen ikusi duzu, edo alderantziz. Desilusio handia litza-teke?**

**A.A.:** Izaskun oso kopilotu ona da. Arretatsua eta fina. Noizbait beste piloturen batek eskaini izan dio, eta nik animatu dut probatzera, baina besteekin konfiantza falta horrek... Baina negatik, libre!

**I.B.:** Niretzat oso gaitza izango zen besteren batez aritzea. Beragaz dut konfiantza. Orain, berak besteren batez probatu gura badu hobia delako... aurrera!

**Kart-etan ibiliak zarete. Nor da arinagoa?**

**A.A.:** Ez dakit nor den arinena, baina orduan sortzen dira haserretik eta pikerik handienak, egia esanda. Aurreratze bat ez dela legezkoa izan, hau eta bestea...

**Seguros Bilbao**  
**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**  
Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

**GAER DESINFEKZIOAK**  
**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**  
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...  
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



# Ilusioz betetako taldea aurkeztu du Bizkaia-Durango Euskadi-Muriasek

Agurtzane Elorriaga iurretarrak zuzenduko duen taldeak hamahiru txirrindulari izango ditu aurtan. Talde eraberrituko kidea izango da Aroa Gorostiza gazte elorriarra



Atzo aurkeztu zuten taldea

## TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR

Ilusioz betetako taldea aurkeztu zuen atzo Bizkaia-Durango Euskadi Muriasek. Agurtzane Elorriagak gidatutako taldeak nazioan

zein nazioartean ondo ibiltzea izango du helburu. “Taldea nahiko gaztea daukagun arren ondo ibiliko garelakoan nago”, adierazi du iurretarrak. Gainera, taldeak

helburu nagusi bat duela azpimarratu du zuzendariak: etxeko lasterketetan —Durango-Durango eta Emakumeen Biran— lan txukuna egitea.

Hamahiru txirrindularik osatzen duten taldean 23 urteko Anna Stricker italiarra izango da talde burua. “Kalitate handiko txirrindularia da eta berarengan itxaropena dugu”, aitortu du zuzendariak.

Euskal txirrindulariei dago kienez, Lierni Lekuonak eta Ane Iriartek pauso bat ematea espero du Agurtzane Elorriagak. “Urte urte gora egin duten txirrindulariak dira eta ziur nago aurtan pauso bat aurrera egingo dutela”, esan du.

Gainera, azken urteotan ez bezala eskualdeko txirrindulari bat izango da Bizkaia-Durango Euskadi-Muriasen; Aroa Gorostiza elorriarra. “Oso gaztea den arren, txirrindulari ona da eta bere eginbeharrak maila berrira egokitzea eta taldeari laguntzea izango dira”, jarraitu du Elorriagak.

Horrez gain, talde eraberrituak harrobia bultzatzen jarraituko duela aitortu du zuzendariak. “Euskal txirrindulariei tokia egiten jarraitu gura dugu, eta etorkizunean euskal txirrindularirik onenak bilduko dituen taldea izatea da gure asmoa”.

Bestalde, Durangoko Udalarri eta Muriasek eskerrak eman dizkio Elorriagarrak. “Beraien babes ezinbestekoa da”, bukatu du.

## Adituaren txokoa

Gotzon Gomez Barrenetxea Errugbia



## Munduko epaile onena

Bizi dugun gizarte honetan ez da ohikoa izaten epaileen inguruan ondo hitz egitea. Era berean, emakumezkoen lana goraiatzea behar den baino gutxiagotan egiten da, baina honako honetan biak goraiatuko ditugu, epaileak eta emakumezkoak, eta ez bakarrik politikoki zuzena delako, baizik eta gure protagonistak merezitako laudorioak irabazi dituelako.

Nori buruz ari gara? Alhambra Nievasi buruz, izen horrekin bere jatorria antzematea nahiko erraza da, nola ez, Granadako alaba dugu Alhambra. Gaztea da oraindik, 34 urte baino ez ditu, baina sekulako ibilbidea burutzen ari da errugbi epaile lanetan.

Zergatik lerro hauetan aipamena? World Rugby Awards ekitaldian 2016. urteko munduko epaile onenaren saria jaso zuelako Rasta Rashivenge epaile hegoafrikarrarekin batera. Aipatzekoa da sari hauetan ez dagoela sexu banaketarik sari-dunen artean; hau da, maila edo kategoria bakarra dago.

Beheko mailetan hasi, eta bost urtean gailurrera heltzea lortu du. DRTko partidak sarritan arbitratu ditu. Gaur egun Ohorezko Mailan aritzen da batez ere, eta askotan nazioartekoetan ere bai. Iaz, urrian, lehen emakumea izan zen gizonzkoen XVeko nazioarteko partida arbitratzen zuena.

Aurretik, Rio de Janeiron 2016ko Olinpiadetan, Australia eta Zeelanda Berriaren arteko emakumezkoen finalean, epaile lanetan aritu zen. 2017. urtean Irlandan jokaturako emakumezkoen Errugbi Mundialean ere aritu izan da.

DRTko neska batzuek epaile izateko ikastaroa egin dute. Beraz, animo neskek, eutsi goiari, eta Alhambrari, zorionak!

# Bizkaiko kros txapelketarik jendetsuena, neska gazteen parte-hartze handiagatik

Azken urteetan krolean hasi diren neska gazteen kopurua dezente hazi da eta horren lekuko izango da Berrizko proba

## KROSA • JOSEBA DERTEANO

Gero eta neska gazte gehiago dabilta krolean eta hazkunde horren erakusgarri izango da domekan Berrizko Berrizburun jokaturako den Bizkaiko Txapelketa. 450 parte-hartzailetik gora egongo dira, ohiko kopurua 400era heltzen ez denean. “Neska gazteen parte-hatzeagatik izan da hazkunde hori”, azaldu du Miguel Angel Munitxa Bizkaiko Federazioko presidentek. Kadeteen

tan eta gazte mailan mutilak baino neska gehiago arituko dira, esaterako, eta juniorretan parean izango dira. “Lehen hori ez zen gertatzen”, adierazi du Munitxak. Lehen probak, kadeteetakoak, 10:00etan hasiko dira. Gizonen seniorretan (12:05) DKT taldekoak (Ariznabarreta, Mimenza...) dira faborito. Dabid Garciak (Durangalde Running) podiuma du helburu. Emakumeetan (13:00) Iraia Garcia da faborito.



Nesken parte-hartzea gora eta gora doa azken urteetan. DURANGALDEA RUNNING

**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza  
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
info@aldekoatotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

**Albisteak eta agenda,** bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org**  
MUGIKORREAN

Available on the App Store

Google Play



# “Saskibaloiak eta areto-futbolak badituzte antzekotasun batzuk”

Saskibaloia utzita zuela, lagun batek areto-futbola probatzera animatu zuen Ingrid Herreros zaldibartarra; Gabonetan Sasikoara batu zen eta asteburuan debutatu dezake

## ARETO-FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Neska gazteek saskibaloirako edo futbolerako joera dute, eta gaitza da areto-futbolera erakartzea. Sasikoari zein beste talde denei gertatzen zaie. Harrobiko taldeak sortzea amets bat da gaur egun. Horregatik, areto-futbola probatze-ko ilusioa erakusten duten denak

besoak zabalik hartzen dituzte, Ingrid Herreros (Zaldibar, 1994) hartu duten moduan. 12 urtez saskibaloian aritu ostean, areto-futbola probatzea erabaki du.

Julza-Zalduan zortzi urte eta Zornotza Saskibaloit taldean beste bi eman zituen. Belauneko lesio batek eta entrenamenduetako

ordutegi berantiarrek saskibaloia uztera eramane zuten. “Betidanik gustatu izan zait futbola”, aitortu du. Horregatik, Sasikoako jokalaria batek areto-futbola probatzera tentatu zuenean animatu egin zen. Hilabete eskas darama taldean. Gabon bueltan batu zen taldera, eta bost bat entrenamendu egin ditu.

Hala ere, asteburuan Zornotzako Beti Gol taldearen kontra jokatu duten derbian (zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian) estreinatzea itxaroten du. “Gogotsu nago, ilusio ikaragarria egiten dit”, dio.

## Desberdinak eta antzekoak

Saskibaloia eta areto-futbola. Herrosek aldeak eta antzekotasunak ikusten ditu kirol bien artean. “Alderik handiena eskuekin barik hankekin jokatzen dela da. Ez da alde txikia. Baina badaude antzekotasun batzuk ere: baloia pasatu eta segituan espazio berri batera joateko mugimendua, esaterako. Saskibaloian ere nahiko antzerakoa da”, adierazi du.

Belauneko lesiotik erreperatuta dagoela dio. “Tendinitisa zela esan zidaten. Fisioterapeutekin eta traumatologoekin ibili naiz, eta denbora askoan atsedean hartu dut”.

Sasikoa eraberritze prozesuan sartuta dago, apurka-apurka ari bada ere. Horregatik, “pazientzia izan behar dugu”, dio Gaizka Irigorri taldeko entrenatzaileak. Herreros jokalariaz gainera, urte bian kadete adineko jokalaria berri bi batu dituzte Ezkurdi futbol taldetik. Landako eskolan areto-futbola ikastetxeko eskola kirolean txertatzen ere saiatu dira, baina, momentuz, ideia ez da gauzatu. Berritua saiatzeko asmoa dute.



Taldean “harrera beroa” egin diotela-eta Herreros “oso pozik” dago Sasikoan hasi duen abentura berrian.

## Espainiako eski txapelketan zilarra irabazi du Ajuriak

### MENDIKO ESKIA • J.D.

Joan den asteburuan mendiko eskiko Espainiako txapelketak jokatu dituzte Boi Taulen (Lleidà). Bertan, Aitor Ajuriak zilarrezko domina eskuratu zuen sprint modalitatean. Otxandiarren aurretik Pau Coll baino ez zen geratu. Kronoigoeran laugarren geratu zen Ajuria. Eguntan Suitzan dago Munduko Kopan parte hartzeko.

## Zuazubiskarrentzat brontzea Espainiako txapelketan

### PISTA • J.D.

Espainiako txapelketetan irabazita dituen dominei beste bat gehitu die Illart Zuazubiskarrek. Joan den asteburuan brontzezko domina irabazi du omnium modalitatean Galapagar belodromoan (Madril) jokatutako txapelketan. Atsedean hartzeko astirik barik, abadiñarra Bielorrusian dago Munduko Kopako proban parte hartzeko.

## Asteko kirolaria

# “Jarraitzeko aukera nuela esan zidatenean, segituan heldu ginen akordio batera”

Atzelari zornotzarrak kontratua berritu du Athletic egaz: 2019ko ekainera arte, beste urtebetez luzagarria delarik. Pozik dago adostu duten akordioagaz

### Zelan joan dira negoziazioak?

2017a amaitu aurretik, datorren urterako taldean baneukala lekua jakinarazi zidaten. Mahaian eseri

eta akordioa heltzea erraza izan zen, egia esanda.

**Gustura zaude lortutako kontratuagaz?**

Bai, gustura. Jokatzen ez duzunean, beste nonbaitera joanda gehiago jokatzeke aukera izan zenezakeela pentsatzen duzu. Baina, gero, hotzean pentsatuta, nire betiko ametsa Athleticen jokatzea izan da, beti borrokatu naiz hori lortzeko eta hemen nagoenez, zertarako aldatu?

**Beste talderen baten eskaintzarik izan duzu?**

Deitu izan didate, baina ez dut inoren aukerarik nabarmendu, Athleticen deiaren zain nengoelako. Jarraitzeko aukera nuela esan zidatenean, segituan heldu ginen akordio batera.

**Zelan daramazu aurtengo denboraldia? Jokatzeke nahi adina aukera barik?**

Pozik hasi nintzen Europa League-ra sailkatu ahal izateko partiduetan titular jokatu nuelako. Gerora, Ligan ez dut aukerarik izan Real Madrilen partidura arte. Gustura geratu nintzen atea hutsean mantentzea lortu genuelako, eta hori ez da erraza Real Madrilen kontra. Alavesen kontra berritua jokatu eta gol bat sartu nuen. Zentralok ez dugu golak sartzeko aukera askorik izaten. Gehiago jokatzea gustatuko litzaidake, jakina, baina taldekideak ondo aritu dira, ez dute lesiorik izan...

**Kili-kolo hasi ostean, taldeak norabide egokia bilatu duela ematen du.** Hasieran emaitza onak lortzea kostatu zitzaigun. Alavesen kontra jokatu arte ezin izan genituen



XABI ETXEITA GORRITXATEGI

Zornotza, 1987

garaipen bi kateatu. Azken boladan taldea fidagarriagoa da eta atzean sendotasuna lortu dugu. Gabonetako geldialdiaren ostean gauza positibo asko ikusi dira eta hori da jarraitu beharreko bidea.



## Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta  
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194





## Botikak

**BARIKUA, 19** - 09:00-09:00

**MUGICA** Andra Maria 9 - **DURANGO**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

22:00-09:00

**ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 20** - 09:00-09:00

**ETXEBARRIA**

Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**GOIRIA, RNOTZA**

09:00-13:30

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**MUGICA** Andra Maria 9 - **DURANGO**

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**BALENCIAGA**

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**SAGASTIZABAL**

Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**LARRAÑAGA-BALENTZIAGA**

Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

**EGUREN, ISABEL**

Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**GUARROCHENA, LIDE** Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI**

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

22:00-09:00

**ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-09:00

**DOMEKA, 21** - 09:00-09:00

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

09:00-22:00

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

22:00-09:00

**ARANBURU, MARIA ISABEL-GUARROTXENA, JAVIER** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 22** - 09:00-09:00

**GAZTELUMENDI** J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

**GUARROCHENA, LIDE** Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 23** - 09:00-09:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**GUARROCHENA, LIDE** Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 24** - 09:00-09:00

**SAGASTIZABAL**

Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**GUARROCHENA, LIDE** Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 25** - 09:00-09:00

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**GUARROCHENA, LIDE** Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU  
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Garazi Areitio (704. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Aratz!** Urtarrilaren 13an 10 urte egin zenituen. Bi zifra zerbakiak! Muxu handi bat etxekuen partez!



Athletic zale honek 11 urte bete ditu. Zorionak aitaren, amaren eta gainontzeko familiaren partez, betiko berdin jarraitu! Muxutzuak!



Domekan **Garazik** 8 urte handi egingo ditu, eta familia osoa elkartuko gara ospatzeko. Musuak eta pottak etxekoen partez!



Urtarrilaren 23an Mariak 9 urte beteko dauz. Zorionak, **Maria!** Pozik ibili zure egunien, amatau 9 kandelak eta ospatu egizu biher dan moduen lagun eta familiagaz. Etxekuen partez, musu handi-handi bat.



**Aimarrek** 10ien 35 urte eta **Ainhoak** 16an 41 urte bete ebiezan. Zorionak, bikote, bardin-bardin zauzie.



Zorixonak, bikote. Segi holako jator eta bizirik ixaten. Musu potolo asko danon partez.



Zorionak, **Anton!** Hi bai artista eta lagun ona. Ondo pasa zure egunian eta beti bezain alaia izaten jarraitu. Aupa, Eibar! Jaso ezazu besarkada handi bat Markoren eta Maddiren partez!

CERAMICAS  
**MACOBER**  
MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**  
Chimeneas  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA  
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**uxarte**  
SAGARDAOGINTZA  
Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815  
www.uxarte.com  
ZABALIK  
OSTIRALETAN ETA  
ASTEBURUETAN  
ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUZ  
Gutxienez 15  
laguneko taldeentzako

**BODEGUILLA**  
TRANA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85



## “Ez dago sagardogile asko hemen, baina uste dut Bizkaiko sagardoa sustatu egin behar dela”

Aurten 500 litro sagardo inguru produzitu ditu Jose Antonio Elustondok Zaldibarko Eitzaga auzoan duen baserrian; hala ere, lagunartean eta familian edateko egiten du sagardoa

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Aita sagardoa egiten ikusitakoa da Jose Antonio Elustondo mutikotan. Orain, berak hartu du lekukoa. Zortzi urte dira lurrean sagarrak hondatzen ikusita sagardoa egiten hasi zela. Aukeran, gurago du Bizkaiko sagardoa Gipuzkoakoa baino, eta hemengo bultzatu egin behar dela uste du. Txotx egiteko prest aurkitu dugu Eitzagakoa Garaialde baserrian.**

**Nolatan hasi zinen etxean sagardoa egiten?**

Baserri inguruan 50-60 sagar-arbola egongo dira eta zelaian, arbolatik jausita, hondatutako sagar-piloa ikusita hasi nintzen etxean sagardoa egiten, duela zortzi urte. Gereziendo, mertxikondo, udareondo eta pikondoak ere baditut. Fruta-arbolak mentatzen ere ibiltzen naiz. Fruta-arbolak mota askotarikoak daude, eta sagar mota bat edo beste lortzeko mentatzen ibiltzen naiz.

**Sagardoa egiteko, nolako sagarra behar izaten da?**

Mingotsa. Berandukoa, gainera. San Juan sagarrak, adibidez, ez du balio. Goiz etortzen da-eta. Irail-urri aldera egiten da sagardoa. Aita zenak —Aizarnazabalekoa zen— egiten zuen etxean sagardoa, ni mutikoa nintzela, baina harrezkeror ez dugu sekula egin, neu hasi nintzen arte. 150 litroko kupela bategaz hasi nintzen. Gerora, 200 litroko eta 60 litroko beste bi hartu nituen, eta 20 litroko kupela txiki bat. Lagunartean afaltzeko elkartzen garenean eramaten dut hori.

**Orduan aitari ikusita ikasi zenuen sagardoa egiten? Zein da prozesua?**

Bai. Batutako sagarrak garbitu eta birringailuan sartzen ditut. Ondo birrindu ostean, prentsan sartu, eta apurka-apurka sagarraren ur guztia irteten joango da. Gero kupelan sartzen dut.

**Zenbat produzitzen duzu?**

Aurten, 500 litro inguru. Iaz gutxiago egin nuen. 2017a urte oso ona izan da. Sagar asko egon da eta oraindik ere badago. Irailean eta urriaren sartzen dut sagardoa kupelatan. Normalean apirilera arte izaten dut bertan. Gero botilaratu egiten dut.

**Asteon abiatu da txotx garai berria Gipuzkoan. Bizkaian, astelehenean zabalduko dute. Zelakoa da aurtengo sagardoa? Baduzu ohiturarik sagardotegietara joateko?**

Aurtengo sagardoa kalitate oso onekoa da, freskoa. Badut asmoa probatzera joateko. Gustatzen zait sagardotegietara joatea; halaxe sortu zitzaidan sagardoa egiten hasteko gogoia.

**Badago alderik Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardoaren artean? Zein duzu gurago?**

Mugakoak gara gu, bertan daukagu Gipuzkoa. Hala ere, nik neuk Bizkaikoaren alde egingo dut. Gozoagoa da Bizkaiko sagardoa. Oraindik ez dago sagardogile asko hemen, baina uste dut. Bizkaiko sagardoa sustatu egin behar dela. Gure parajea eguzki-begian dago, eta sagarra ondo heltzen da. 07:00etatik 23:00etara eguzkia dugu uda partean. Gereziak ere onduta izaten ditut sanisidrotarako, maia-tzerako.

**Hala ere, zeuretzat egiten duzu sagardoa. Inoiz pentsatu duzu saltzea?**

Afizioz egiten dut nik sagardoa, eta familiakoaren artean eta lagunartean banatzen dut. Lantzean behin garajeko bezeroren bati ere ematen diot botilaren bat. Saltzeko asmorik ez dut, momentuz behintzat. Akaso aurrerago... jubilatzerakoan edo (barrez). Semeak ere badu afizioa. Sagar-arbola batzuk sartuta ditu etxe inguruan eta saltza horretan sartuta dabil. Askok

gustatzen zaio sagardoa, eta neuri ere bai. Egunero edaten dut.

**Zer du berezia?**

Freskoa da, beste zera bat du.

**Zein da sagardo ona lortzeko sekretua?**

Sagarra. Horrez gain, nik neuk kupela itxi

barik izaten dut denbora batean. Bizpahiru egunetan goraino betetzen dut kupela, gainezka izaten dut, haizerik hartzen utzi barik. Fermentatu dadin eta zikina kanpora atera dadin. Lantzean behin probatu egiten dut, eta mingosten badoan ikusi. Gero, lauzpabost hilabetean pausatzen uzten dut, kupela ondo itxita.

**Erakustaldia ere egin zenuen Zaldibarren, San Andres jaietan. Nola joan zen?**

Oso ondo. Sagardoa nola egiten den erakutsi genuen. Jende asko etorri zen Mallabitik, Atxondotik, Elgetatik, Eibarretik... Neskato-mutikoak sagarrak batzen jarri genituen eta giro polita sortu zen.



**Jose Antonio Elustondo Mallabiabarrena**  
Sagardoa egilea  
Zaldibar | 1955

**Lauhortza**

Amaia Ugalde Begoña  
Kazetaria



**Gure belaunalditik, eskerrik asko**

Negutegia gure ikastolako txoko kuttunetako bat izan da beti; begiak itxita, hango usaina eta beroa datozkit gogora. Familian baserriak eduki ez dugun kalle-umeok hantxe hartu genuen atxurra lehenengoz. Gogoan dut bertan hazitako espinaka bat etxera eroan nuen lehen aldia.

Patiara eroan nau oroitzen horrek, eta sanblasetako opilak egiten ikusi dut neure burua. Ikastolako ikasle guztiok hantxe, ekin eta ekin. Gero etxera eroaten genuen jateko; apur bat gogor geratuta ere, hura zen munduko opilik gozoena!

Eta etxera eroan genituen gure eskulan ederrak; karpeta azalak; amantalak barikuetan; seme-alaba gazteenok txintxo-txintxo etxera eroan beharreko oharrak (“zorriak ikastolan!”); egunean zehar trukaturako Son Gokuren kromoak; teknologia-proiektu txapuzeroak...

Askok jaso dugu ikastolatik, bai, bizipen ugari eman dizkigu Txintxirrik. Gure belaunaldia, horretan, berezia izan da. Domeketan lagunekin zinera joaten hasi ginen garaian, ikastolak bere krisi gogorrenetako bat bizi izan zuen. Orduko umeok irakaspen berezia jaso genuen; urteka barik zikloka jarri ginen gelan, eta ikastola oso gure sentitu genuen. Irakasle eta gurasoak ikastolaren alde arduraz eta ilusioz ikusi genituen lanean, batzar luzeen ostean berandu etortzen ziren etxera, eta guk ere lagundu genuen barikuetan gelak garbitzeko txandak egiten.

Txoko honetatik lan hori airtortu gura nuke; itsaso zakar hartan arraun egin zenutenon lana; ama, aita, irakasle, langile. Ikastolak 50 urte bete izana zuei esker ere izan da. Eskerrik asko, benetan.

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

**BERRIZ**  
Eitua industnagunea, 71C  
Tel.: 946 824 550

**GERNIKA**  
Goiko Ibarra, 26  
Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net / www.alkimax.net



FAROLAK



INFRAGORRIAK



AIRE KAINOIA



ERRADIADOREAK



HEZETASUN KENGAILUAK



MOTOBONBAK



BONBA URPERAGARRIAK